



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko azaroaren 23a

143. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Ezkierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena. Zuzenketak aurkezteko epea (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, Nafarroako Erriberan txirrindulariak ibiltzen diren errepideetan bide-seinaleak jartzeari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, beken arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, topografiako terminoei eta horien izendapen ofizialak aldatzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, espetxeen arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, I+G+D arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, unibertsitate-ikasketak egiten ari diren gazteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak edo haren enpresa publikoetako edozeinek zer zenbateko eta baliabiderek lagundu dioten Arkitektura eta Gizartea Fundazioari. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakitekoa ea zer protokolo dagoen Elizaren eta Nafarroako Gobernuaren eta haren erakundeen artean, ondare artistiko eta kulturala egoki tratatu, kontserbatu eta kudeatuko dela bermatzeko. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).

- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuaren eta Estatuko Gobernuaren artean zer akordio sinatu edo adostu diren –edo sinatzeko edo adosteko bidean dauden–, “gastu-araua” izenekotik heldutako mugak gainditze aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Tafallan uztailearen 13an izandako ekaitzak eragindako kalteak direla-eta Nafarroako Gobernuak abian jarritako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Josefina Arregui zentroarekiko ituna berritzeari dagokionez Osasun Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, aurreko legegintzaldietako jarduketan ondoriozko prozesu-kostuak direla-eta Nafarroako Gobernuak jasotako zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, hala hiri-altzarrietan nola nekazaritza-produkzioetan fenomeno atmosferiko zakarren eraginez izandako kalteak eta txikizioak direla-eta Nafarroako Gobernuak abian jarritako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak antolatuta, Merkataritza Ganberak eta zenbait enpresak Estatu Batuetara eginen dituzten bidaiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, informazio-seinale bertikalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuko Irakasleari Laguntzeko Zentroen eta Berriztapen Proiektuen Bulego-ko burua kargutik kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako funtzionarioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, jakitekoa ea igorritako informazioan zergatik ez diren zenbatzen funtzionarioek Irakasleari Laguntzeko Zentroetan emandako urte guztiak. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetan egun dauden lanpostu irregularrak betetzeko deialdi publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2019ko lan egutegia (35. or.).
- Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorren 2019ko ordutegi ofiziala (36. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, bestek bestek:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dioten legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioek eta Izquier-da-Ezkerrako foru parlamentarien elkarrekin Nafa-rroko Administrazio Publikoen zerbitzuko langile-en estatutuaren testu bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu dute, eta presako eta irakurketa bakar-reko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoa-rekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Administra-zio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testu bategina, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsia, aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Foru lege proposamena presako eta irakur-keta bakarreko prozeduraz izapidetzea.

**3.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. arti-kuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

**4.** Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aur-keztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru lege proposamena, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafa-rroko administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

2018ko apirilaren 13an onetsi da Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legea, zeinaren 67. artikulua ezartzen baitu baldin eta adminis-trazio publiko batek erabakitzen badu zuzenean ematea kasuan kasuko egunera arte eragile eko-nomiko batek emana zen zerbitzu bat, behartuta egonen dela zerbitzu hori ematen ari ziren langile-ak subrogatzera, eta haiek beren lanpostuan irau-nen dute harik eta lanpostu horiek funtzio publiko-ari buruzko araudi aplikagarriari jarraikiz betetzen diren arte.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Esta-tutuaren testu bateginaren 3.1 artikulua ezartzen du, berriz, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langile izanen direla funtzionario publi-koak, behin-behineko langileak eta langile kontra-tudunak, eta azken horiek bi motatakoak izan dai-tezkeela: administrazio araubidekoak nahiz lan araubidekoak.

Legegintzako foru dekretu horrek paragrafo horretan ezarritakoarekin bat, Nafarroako admi-nistrazio publikoetako funtzionario izateko hauta-gaien nahiz lan-kontratudunen hautaketa egin behar da deialdi publikoaren eta kasuko hautapro-ben bidez, enplegu publikorako sarbidea arautu behar duten merezimendu eta gaitasun prin-tzipioetan oinarrituta, gure Konstituzioaren 103. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Langile kategoria horiei gehitu beharra dago “langile ez-finko”aren figura, jatorri jurisprudenzialekoa, zeina, 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko uztailaren 3ko 6/2018 Legearen berrogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera, ezin baita administrazio publikoak onartua izan, non eta ez den ebazpen judizial batetik heldu.

Hortik ondorioztatzen da ezen Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 67. artikulua aplikatuta subrogatu daitezkeen langileak, nahiz eta lan-izaerakoak izan, Administrazioak ezin dituela lan araubidean kontratatutako langile gisa hartu eta, horrenbestez, langile publiko gisa, zeren haiek hautatzean ez baitira bete araudiak exigitzen dituen baldintzak, eta ezin dituela “langile ez-finko” gisa hartu ere, ebazpen judizial baten ondorioz ez bada.

Hori guztia kontuan hartuta, beharrezkoa da Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea, halako moduan non langile subrogatuak, langile publikoaren izaera eduki ez arren, administrazio publikoan zerbitzu eman ahal izanzen baitute; hartara, administrazioarekin duten lan-harremanaren izaera juridikoa arautuko da, bai eta haien lan-baldintzei aplikatu beharreko araubide juridikoa ere, harik eta haien lan-kontratua –legez aurreikusitako arrazoietakoren bat dela medio– amaitzen den arte.

Foru lege honek beharrezko horri erantzuten dio; halatan, 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren 3. artikulua 1. apartatua aldatzen da, langile subrogatuak “langile barneratu” izenarekin sar daitezkeen administrazio publikoaren zerbitzuan, eta titulu bat gehitzen da –IV bis titulua–, langile horien izaera eta horiei aplikatu beharrezkoa araubide juridikoa arautzeko.

Azkenik, beste xedapen gehigarri bat sartzen da, non ezartzen baita langile subrogatuak “langile barneratu” izateko beharrezkoa izanzen dela subrogazioa foru dekretu bidez egitea eta foru dekretu horretan subrogatuko diren langile guztiak banan-banan identifikatzea, enpresan duten lanbide-kategoriarekin eta antzinasunarekin.

**Artikulu bakarra.** Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako Administrazio Publikoaren Zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina aldatzea.

Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina aldatzen da. Hona testu berria:

Bat. Nafarroako administrazio publikoaren zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bateginaren 3.1 artikuluan d) letra sartzen da. Hona testua:

“d) Langile barneratuak”.

Bi. “IV bis titulua. Langile barneratuak” izeneko titulu bat gehitzen da. Hona testua:

“96. bis artikulua.

1. Baldin eta Nafarroako administrazio publikoak, lege mailako arau baten kariaz, subrogatzera behartuta badaude langile publikoaren izaera ez daukaten langileen kontratazioan, langile barneratuaren maila emanen diete langile horiei, eta hori kasuan kasuko agiri bidez formalizatuko da.

2. Langile barneratuak bere izaera mantenduko dute, beren lanpostua ez da zerbitzu ematen duten administrazio publikoaren plantilla organikoaren parte izanzen eta Nafarroako aurrekontu orokorretako “Transferentzia arruntak” IV. kapituluaren kargura jasoko dituzte beren ordainsariak Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioaren eta haren mendeko erakunde autonomoen kasuan, edo, bestela, horren homologoan.

3. Langile barneratuak subrogazioa egiten den unean indarrean den kontratuan jasota ageri den lanpostua soilik bete ahal izanzen dute, kontratuan aurreikusitako iraupenarekin.

4. Subrogazioa egiten denetik hiru urteko epean gehienez ere, kasuko lanpostua sortuko da plantilla organikoan langile barneratuak kontratu mugagabearekin betetako lanpostu bakoitzeko, eta lan-eskaintza publikoan sartuko da, lanpostua oposizio-lehiaketa edo oposizio bidez bete dadin, indarreko araudiarekin bat, berdintasunaren, merezimenduen eta gaitasunaren printzipioekin bat.

5. Langile barneratuak bere lanpostuan jarraituko du harik eta lan-kontratuak amaitzeko lege-arrazoietakoren bat dela medio bere lanpostua uzten duen arte edo/eta plantilla organikoan sortutako lanpostua, bere lanpostuari dagokiona, behin betikoz bete arte.

6. Langile barneratuak estatutu honetako IV. tituluko II. kapituluaren lan-araubidean kontratatutako langileentzat aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaie, salbu eta araubide horretan ezarritakoa eta titulu honetan ezarritakoa bateraezina badira”.

Hiru. Xedapen gehigarri bat eranstean da. Testu hau izanzen du:

“Lehen xedapen gehigarria. Subrogazioa onartzea.

1. Foru erkidegoaren esparruan foru dekretu bidez egin beharko da langile barneratu gisa subrogatzen diren langileen onarpena, zeinaren bidez banan-banan identifikatuko baitira eta jasota ageriko baitira haiek enpresan duten lanbide-kategoria eta antzintasuna.

2. Baldin eta administrazio horretan ez badago subrogatutako langileetakoren baten baliokidea den lanbide-kategoriarik, foru dekretu horretan berean ezarriko da zer kategoriarekin parekatu beharko den administrazio horretan dauden kategoria guztien artetik.

3. Xedapen honetako 1. apartatuan aurreikusitakotik salbuesten da bizi-euskarri aurreratuko osasun-garraio urgenteko zerbitzuko langileak langile barneratu gisa subrogatzea, horien plantilla, barneratzea erabakitzen duen Osasun Departamentuaren egintza administratiboaren egunekoa, barneratuaren izaera edukitzera igaroko baita”.

Lau. Bigarren xedapen gehigarria gehitu da, testu honekin:

“Bigarren xedapen gehigarria. Funtsmugimenduak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan zerbitzuak barneratzea finantzatzera bideratutako aurrekontu-partidak, edo horiek behar bezala finantzatzeko gaitu beharko liratekeenak, funtsmugimenduen bidez handitzen ahalko dira, eta funtsmugimendu horiei ez zaizkie aplikatuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38. artikuluan eta 44.etik 50.era bitartekoetan ezarritako mugak.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak izanen du funtsmugimendu horiek baimentzeko eskumena”.

**Azken xedapena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duena.**

### *ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2018ko azaroaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena aintzat hartzea. Proposamen hori Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioak aurkeztu eta 2018ko azaroaren 14ko 110. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

#### **ERABAKIA:**

**1.** Xedatzea prozedura arruntari jarraikiz izapidetu dadin Nafarroako Administrazio Publikoen

zerbitzuko langileen estatutuaren testuategina ezartzen duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

**2.** Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordearen esku uztea.

**3.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epe bat hasiko da, 2018ko abenduaren 20ko eguerdiko hamabietan bukatuko dena.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, talde parlamentarioek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahaliko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Nafarroako Erriberan txirrindulariak ibiltzen diren errepideetan bide-seinaleak jartzeari buruzkoa.***MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Erriberan txirrindulariak ibiltzen diren errepideetan bide-seinaleak jartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Podemos-Ahal Dugu-Orain Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil

García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

2017ko ekainaren 23an, txirrindulariak ibiltzen diren errepideak seinaleztatzeko lehen fasea aurkeztu zuen Barneko kontseilariak, txirrindularien segurtasuna areagotzea helburu. Une hartan iragarri zen beste fase baterako geratuko zirela Iruñeko hegoaldeko beste hiru ibilbideren seinaleztatzeta eta Erriberako beste batzuen (lehenago, Barne Zuzendaritza Nagusiak horiek identifikatu behar ditu, Nafarroako Txirrindularitza Federazioarekin lankidetzan).

Zer aurreikuspen darabilzue Nafarroako Erriberako ibilbide horietan bide-seinaleak jartzeari begira?

Iruñean, 2018ko azaroaren 14an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **Galdera, topografiako terminoei eta horien izendapen ofizialak aldatzeari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, topografiako terminoei eta horien izendapen ofizialak aldatzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut topografiako terminoei eta horien izendapen ofizialak aldatzeari buruz:

- Nafarroako Gobernuak zer mekanismo dauka ezarrita orain arte ezkutatuta egon diren izendapen topografikoak jasotzeko?

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, beken arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, beken arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut beken arloko eskumenak eskuratzeari buruz:

- Nafarroako Gobernuaren ustez, zer aukera irekitzen da beken arloko eskumena eskuratzean?

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro



## **Galdera, espetxeen arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, espetxeen arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut espetxeen arloko eskumenak eskuratzeari buruz:

• Nafarroako Gobernuaren ustez, zer aukera irekitzen da espetxeen arloko eskumena eskuratzean?

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

---

## **Galdera, I+G+D arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa.**

*MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkeztutako galdera, I+G+D arloko eskumenak eskuratzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Honako hau jakin nahi dut I+G+D arloko eskumenak eskuratzeari buruz:

• Nafarroako Gobernuaren ustez, zer aukera irekitzen da I+G+B arloko eskumena eskuratzean?

Iruñean, 2018ko azaroaren 15ean

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, unibertsitate-ikasketak egiten ari diren gazteei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, unibertsitate-ikasketak egiten ari diren gazteei buruzkoa. Galdera 2018ko ekainaren 29ko 93. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko uztailaren 24an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Maiorga Ramírez Erro jaunak, aurkeztutako 9-18-PES-00156 idatzizko galderaren harira, Nafarroako gobernuko Hezkuntza kontseilariak zera dio:

Hezkuntza departamentuak ez dauka kompetentziarik ez duen unibertsitateetan matrikulatutako Nafarroako ikasleen daturik, alegia, Nafarroako Unibertsitatea eta Nafarroaz kanpoko

unibertsitateak. Hala ere, hainbat datu eskaintzen dira, beste hainbat iturritatik jasotakoak:

a) Nafarroako Unibertsitate Publikoaren webgunean esaten denez, 6.764 unibertsitate-ikasle nafar ari dira 2017-18 ikasturtean Gradu, Master eta Zikloetan.

b) Sarrera frogak gainditzen dituzten ikasleen matrikula. Batz besteko balioa azaltzen da 2013-14 ikasturtetik 2016-17ra:

– Nafarroako Unibertsitate Publikoa: 1.022 ikasle matrikulatu ziren.

– Nafarroako Unibertsitatean: 550 ikasle.

– Gainerako unibertsitateak: 910 ikasle.

Gainerako galderen inguruan, Departamentuak ez du informaziorik.

Iruñean, 2018eko uztailaren 24an

Hezkuntza Kontseilari eta Gobernuko Eleduna:  
María Solana Arana

## **Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak edo haren enpresa publikoetako edozeinek zer zenbateko eta baliabiderek lagundu dioten Arkitektura eta Gizartea Fundazioari.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuak edo haren enpresa publikoetako edozeinek zer zenbateko eta baliabiderek lagundu dioten Arkitektura eta Gizartea Fundazioari. Galdera 2018ko irailaren 10ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nasuvinsa Arkitektura eta Gizartea Fundazioako patronatukidea izateari buruz (9-18/PES-00157). Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Lehena.- Nafarroako Gobernuak edo haren enpresa publikoetako edozeinek Arkitektura eta Gizartea Fundazioari urtez urte zer zenbateko eta baliabiderek lagundu dioten.

Nafarroako Gobernuak, Nasuvinsa sozietate publikoaren bidez, 40.000 euroko (berrogei mila euro) urteko ekarpen bat egiten dio Arkitektura eta Gizartea Fundazioari Nazioarteko Arkitektura Biltzarra eta Ultzama Nazioarteko Campusa antola ditzan, bi entitateak elkarrekin lotzen dituen hitzarmenaren zazpigarren eta zortzigarren klausuletan ezarritakoaren arabera. Gainera, bedertzigarren klausulan jaso bezala, 600 (seiehun) euroko hamar beka bitarte eman ahal ditu arkitekto gazteek Udako Eskolan parte har dezaten sustatzeko.

Bigarrena.- Nafarroako Gobernuak parte hartutako, lagundutako edo finantzatutako ekitaldi guztien zerrenda, horietako bakoitzean lortutako interes publikoko helburuak zehaztuta.

Nafarroako Gobernuak joan den 2018ko ekainean egindako Nazioarteko Arkitektura Biltzarrari lagundu dio, sustatzaile gisa, bai eta 2018ko uztailan garatutako Ultzama Nazioarteko Campusari ere. Lehenengo kasuan, Iruñeak izen handiko eta nazioarteko lehen mailako erreferentziako foro baten egoitza izaten jarrai dezan, eraikuntza sozial eta jasangarriaren eremuari dagokionez; bigarren kasuan, berriz, gure ingurune geografiko arkitekturako ikasleei prestakuntza emateko interesarekin, bai eta, ordainetan, Nasuvinsa sozietatearen lurzati batzuei buruzko bi arkitektura-proiektu jasotzearen truke, gazteentzako eta adinekoentzako alokairuko etxebizitzaren etorkizuneko garapen batzuetarako.

Hirugarrena.- Patronatukide izatetik Nafarroako Gobernuarentzat edo haren enpresa publikoetako edozeinentzat heldu diren betebeharren zehaztapena.

Nafarroako Gobernuak edo Nasuvinsa enpresa publikoak Arkitektura eta Gizartea Fundazioaren patronatuan parte hartzeari dagokionez, horretatik ez datorkie berariazko betebeharririk bat ere, hitzarmenaren zazpigarren, zortzigarren eta bedertzigarren klausuletan jasotakoaz harago.

Laugarrena.- Fundazio horretan patronatukide bat izendatzea erabakitzen duen Nasuvinsaren bilkuraren akta.

Nasuvinsa sozietateak ez du inongo erabakirik hartu Arkitektura eta Gizartea Fundazioko Patronatuan ordezkari izendatzeari buruz, zeren eta egia bada ere hitzarmen horren bigarren klausulak ezartzen duela Nazioarteko Arkitektura Biltzarrean eta Ultzama Nazioarteko Campusean laguntzaileak "ahalmena ematen diola bere garaian zehazten den ordezkari izateko Fundazioko ordezkari-organoean", ordezkari-formula hori oraindik ere zehaztu gabe baitago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko irailaren 27an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

## **Galdera, jakitekoa ea zer protokolo dagoen Elizaren eta Nafarroako Gobernuaren eta haren erakundeen artean, ondare artistiko eta kulturala egoki tratatu, kontserbatu eta kudeatuko dela bermatzeko.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea zer protokolo dagoen Elizaren eta Nafarroako Gobernuaren eta haren erakundeen artean, ondare artistiko eta kulturala egoki tratatu, kontserbatu eta kudeatuko dela bermatzeko. Galdera 2018ko irailaren 10ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Elizak Nafarroan daukan ondare artistiko eta kulturalari dagokionez, honako hau jakin nahi dut kontserbazioaren eta kudeaketaren arloetan daukan betebeharrei buruz (9-18/PES-00158). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

**Lehena.-** Elizaren eta Nafarroako Gobernuaren eta haren erakundeen artean dauden protokoloak, ondare artistiko eta kulturala egoki tratatu, kontserbatu eta kudeatuko dela bermatzekoak:

Nafarroako Gobernuaren eta Elizaren arteko berriazko protokolorik ez dago galderan planteatzen diren gaiei buruz. Nafarroako ondare kulturalaren tratamendua, kontserbazioa eta kudeaketa Nafarroako Kultur Ondareari buruzko 14/2005 Foru Legean araututa daude.

Nolanahi ere, bildu gabe hamar urte baino gehiago iragan ondoren, 2017ko urtarrilaren 23an Nafarroako Gobernu-Eliza Katolikoa Batzorde Mistoa berraktibatu zen. Organo hori Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legean arautu zen. Bigarren bilera 2018ko apirilaren 25ean egin zen. Egindako bi bilkura horietan, Iruñeko eta Tuterako katedraletan zaharberritze-lanak direla-eta aurreikusitako esku-hartzeak errepasatu ziren.

**Bigarrena.-** Nafarroako erakunde publikoek azken hamar urteotan gainbegiratu dituzten jarduketan zerrenda bat.

Elizaren kultur ondasunak direla-eta Ondare Historikoaren Zerbitzuak aurrera eraman dituen jarduketei dagokienez, ondasun higiezinetan egindakoak eta ondasun mugigarriei dagozkienak bereiz daitezke.

Ondasun higiezinei dagokienez, honako hau da egindako gainbegiratzeko-jarduketan zerrenda:

2008

1. Ageza. Eliz-parrokia zaharberritzea.
2. Corella. Corellako Karmeldar Oinutsen komentaren kanpoko aldea.
3. Corella. San Migel eliza zaharberritzea.
4. Faltzes. Eliz-parrokia zaharberritzea.
5. Mendaza. Eliz-parrokia zaharberritzea.
6. Urrotz. Eliz-parrokia zaharberritzea.
7. Valtierra. Eliz-parrokia zaharberritzea.
8. Ihabar. Eliz-parrokia zaharberritzea.
9. Areso. Jasokundearen eliza zaharberritzea.
10. Ziga. San Lorenzo zaharberritzea.
11. Artika. Eliz-parrokia zaharberritzea.
12. Caparroso. Sotoko Ama Birjinaren ermita zaharberritzea.
13. Cintruénigo. San Juan elizako dorrea zaharberritzea.
14. Zarikegi. San Andres elizako teilatua zaharberritzea.
15. Zildotz. San Esteban eliza zaharberritzea.
16. Garralda. Eliz-parrokia berritzea.
17. Goizueta. Santa Maria Magdalena ermita zaharberritzea.
18. Iribas. Eliz-parrokia berritzea.
19. Lerin. Andre Mariaren eliz-parrokia berritzea.
20. Lesaka. Eliz-parrokia teilaberritzea.
21. Lizasoain. Eliz-parrokia zaharberritzea.
22. Urbiola. Eliz-parrokiako teilatuak konpontzea.
23. Valtierra. Eliz-parrokia zaharberritzea.

## 2009

1. Faltzes. Eliz-parrokia zaharberritzea.
2. Etxarri. San Estebanen berokuntza jartzea.
3. Elizondo. Santiago elizako fatxadak berritzea.
4. Arlegi. Elizako teilatua konpontzea.
5. Gesalatz. Elizako barne-zoladura saneatzea.
6. Amatriain. Eliz-parrokiako zoladura konpontzea.
7. Urdazubi. Elizako dorrea teilaberritzea.
8. Azkona. San Martin elizako barnealdea zaharberritzea.

## 2010

1. Erriberri. San Pedroko klaustroko kasalak.
2. Aguilar Kodeskoa. Elizako teiltuak berritzea.
3. Allo. Elizako teiltuak zaharberritzea.
4. Lizarra. Lizarrako San Pedroko teiltuak aldi baterako babesteko proiektua.
5. Larrageta. Elizan berokuntza jartzea.
6. Makirriain. Eliz-parrokiako dorrea konpontzea.
7. Iruña. San Nikolas elizako kanpoko fatxadak garbitu eta zaharberritzea.
8. Urrotz. Eliz-parrokia berritzea.
9. Zudairi. Parrokia-etxean teilaberritze-lanak egitea eta fatxada konpontzea.

## 2011

1. Oibar. San Pedro elizako erreformak.
2. Arbeitza. Eliz-parrokian berokuntza jartzea.
3. Atondo. Elizako teiltua zaharberritzea.
4. Atondo. Elizako dorrea konpontzea.
5. Zirauki. San Roman elizako teiltua berritzea.
6. Espartza-Galar. Parrokia-etxeke teiltua konpontzea.
7. Lizarra. Lizarrako San Pedroko iparraldean ate bat zabaltzea.
8. Etxalar. Andre Maria elizako teiltua berritzea.
9. Ezkaroze. Santa Maria Magdalena ermita zaharberritzea.
10. Egiarte. Santa Mariako zurezko zorua partzialki aldatzea.
11. Larraona. Eliz-parrokiako mendebaldeko hormaren sabela konpontzea.
12. Lerga. Eliz-parrokiako teiltu-hodia konpontzea.
13. Milagro. Andre Maria elizako dorreko teiltua zaharberritzea.
14. Muruzabal. San Esteban dorrearen barneko aldea eta teiltua berritzea.

15. Olatzagutia. Eliz-parrokiako dorreko eskailera aldatzea.
16. Orrio. Eliz-parrokia teilaberritzea.
17. Getze-Ibargoiti. Eliz-parrokiako teiltuak berritzea.
18. Doneztebe. San Pedroko barruko aldea berritzea.

## 2012

1. Oibar. San Pedroko organoaren forjatua desmuntatzea.
2. Oibar. San Pedroko iparraldeko portada berritzea.
3. Allo. San Kriston teilaberritze-lanak egitea.
4. Antsoain. San Kosme eta San Damian eliza zaharberritzea.
5. Arlegi. Eliz-parrokia berritzea.
6. Cascante La Victoria elizan hezetasunaren aurkako sistema jartzea.
7. Eusa. Eliz-parrokiako teiltua konpontzea.
8. Fontellas. Elizako kanpandorreko iparraldeko horma konpontzea.
9. Galar. San Martin eliza zaharberritzea.
10. Ibero. Eliz-parrokiako zoruan zura jartzea eta berokuntza jartzea.
11. Legasa. Santa Katalinako teiltua konpontzea.
12. Makirriain. Elizako teiltua eta forjatua eraisitea.
13. Milagro. Eliz-parrokiako teiltua zaharberritzea.
14. Muzki. Elizako fabrikaren afekzioei buruzko analisia.
15. Zangoza Aita Kaputxinoen eliza konpontzea.
16. Zangoza Santa Mariako sakristiako zorua konpontzea.
17. Satrustegi. Eliz-parrokia zaharberritzea.
18. Sorauren. Eliz-parrokian saneamendu-lanak egitea eta zorua aldatzea.
19. Iruñuela. Eliz-parrokia teilaberritzea.

## 2013

1. Aguilar Kodeskoa. Eliz-parrokiako atalondoa sendotzea.
2. Leotz. Eliz-parrokiako egitura sendotzea.
3. Antsoain. San Kosme eta San Damian elizako barnealdea zaharberritzea.
4. Beire. Eliz-parrokiako teiltua konpontzea.
5. Bezkitz. San Andres eliz-parrokiako egitura sendotzea.

6. Corella. Nuestra Señora del Villar ermitako teilatuak aldatzea.
7. Deikaztelu. Eliz-parrokiako erlaitzak garbitu eta saneatzea.
8. Estenotz. Eliz-parrokiako mendebaldeko horma eta gangak konpontzea.
9. Mendigorria. San Pedro elizaren atalondoko harlauzak saneatzea.
10. Mendibil. Eliz-parrokiako teilatua zaharberritzea.
11. Iruña. Dominikoen komentuko absidea garbitzea.
12. Errezu. Eliz-parrokiako sakristiako teilatua konpontzea.
13. Saratsate. Eliz-parrokiako horma berriz jartzea eta zimentazioari berriz oinarria jartzea
14. Untzu. Santa Luzia ermitako teilatuak zaharberritzea.
15. Uzkita. San Klemente elizako egitura sendotzea.

## 2014

1. Oibar. San Pedroko koroan aldaketak egitea eta organoari sostenguko oinarria jartzea.
2. Altsasu. Eliz-parrokiako kontrahormak estaltzea.
3. Arbeitza. Elizako sakristian komuna egitea.
4. Arre. Eliz-parrokiako zoladura aldatzea.
5. Cintruénigo. Sortzez Garbiaren ermita zaharberritzea.
6. Fontellas. Eliz-parrokia zaharberritzea.
7. Ilundain. Eliz-parrokian konponketak egitea.
8. Iturgoien. Eliz-parrokiako atalondoa konponketak egitea.
9. Oko. Eliz-parrokiako dorrearen barruko aldea konpontzea.
10. Iruña. San Santurninoko teilatuak zaharberritzea.
11. Zare. Eliz-parrokiako barruko pintura.
12. Jaitz. Eliz-parrokiako teilatuak konpontzea.
13. Zuñiga. Eliz-parrokiako teilatuak konpontzea.

## 2015

1. Atallu. Eliz-parrokiako teilatuak konpontzea.
2. Beltzuntze. Atalondoko teilatua zaharberritzea.
3. Corella. Karmeldarren fatxada zaharberritzea.
4. Elortz. Eliz-parrokiako alboko kaperetako teilatuak konpontzea.
5. Ergoiena. Eliz-parrokiako dorrea sendotzea.

6. Itsaso. Eliz-parrokiako teilatua eta fatxada konpontzea.
7. Itzu. Eliz-parrokia teilaberritzea.
8. Larrion. Eliz-parrokiako argindarra berritzea.
9. Lodosa. San Migel elizako barruko argiteria
10. Murelu-Deierri. Eliz-parrokiako teilatua konpontzea.
11. Iruña. San Nikolas eliz-parrokiako eskailera erreformatzea.
12. Iruña. San Saturnino eliz-parrokiako galdaren gelako itogina konpontzea.
13. Ziga. Eliz-parrokiako barruko aldea erreformatzea.
14. Zubieta. Eliz-parrokiako atariaren itxitura.

## 2016

1. Aguilar Kodeskoa. Eliz-parrokiako teilatua konpontzea.
2. Amunarrizketa. Huntzak eta landareak erretirtzea.
3. Aritzaleta. Berogailua paratzea.
4. Arre. Teilatuak konpontzea.
5. Astitz. Eliz-parrokiako eta parroquia-etxea zaharberritzea.
6. Bearin. Dorrea konpontzea.
7. Beltzuntze. Sabaien kontserbazioa.
8. Corella. Andre Maria Arrosariokoa elizako dorreko erlaitzak konpontzea.
9. Egiarte. Dorrea teilaberritzea.
10. Etaiu. Dorrea zaharberritzea.
11. Fontellas. Barruko pintura eta igeltsero-lanak.
12. Lukin. Andre Maria Erremedioetakoa basilikako kupulako arrakala konpontzea.
13. Mezkiritz. Eliz-parrokia zaharberritzea.
14. Oieregi. Eliz-parrokia teilaberritzea.
15. Iruña. San Santurninoko Bideko Ama Birjinaren kaperako zoladura aireztatua.
16. Iruña. San Lorentzoko barruko pintura.
17. Erronkari. Eliz-parrokian zenbait jarduketak egitea.
18. Sorlada. Eliz-parrokiako zoladuraren aireztatzea eta konpontzea.
19. Usetxi. Dorrea sendotzea.
20. Usi. Antzinako eliz-parrokiako teilatuak.
21. Uzkita. Elizatik huntzak eta landareak erretirtzea.
22. Bidaurre. Eliz-parrokiako dorrea zaharberritzea.

23. Zizur Nagusia. Elizako atalondoko sabai falsua ordezte.

24. Zuñiga. Eliz-parrokiako barruko pintura.

#### 2017

1. Abaigar. San Bartolome ermitako teilatua konpontzea.

2. Oibar. San Pedro elizako zutabeetako danborrak birjartzea.

3. Arruazu. Eliz-parrokian berokuntza jartzea.

4. Ballariain. Eliz-parrokiako atalondoko teilatua konpontzea.

5. Cascante La Victoria elizako klaustroko teilatuak konpontzea.

6. Labeaga. Eliz-parrokiako portada garbitzea.

7. Melida. Santa Maria elizako teilatua zaharberritzea.

8. Villamayor de Monjardin. Dorrea argizatzea eta sarreran burdin sarea jartzea.

#### 2018

1. Aldaba. Jasokundearen eliza zaharberritzea.

2. Artaitz. Eliz-parrokiako hormetako pinturak leheneratzea.

3. Fitero. La Bardako Ama Birjinaren kapera zaharberritzea. Santa Maria.

4. Fitero. Aldareak leheneratzea. Santa Maria.

5. Girgillao. Eliz-parrokiako atalondoa konpontzea.

6. Lodosa. Eliz-parrokiako portada konpontzea.

7. Los Arcos. Klaustroko teilatua konpontzea.

8. Mañeru. San Pedro elizako atalondoko zorua konpontzea.

9. Ribaforada. San Blas eliza konpontzea.

10. Viana. Santa Maria dorrearen barruko aldea garbitzea.

Ondasun higigarriei dagokienez, honako hau da egindako gainbegiratze-jarduketaren zerranda:

#### 2008

1. Oibar. San Pedro eliz-parrokiako erretaula nagusia zaharberritzea.

2. Aratzuri. San Joan Bataiatzailearen eliz-parrokiako erretaula nagusiari buruzko informazioa.

3. Arguedas Ama Birjina Arrosariokoa elizako erretaulan esku-hartzeko aholkua.

4. Arguedasko tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. El Yugoko ama birjinaren koroa.

5. Artaxoa. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Ama Birjina Jerusalemgoaren irudia erakusketa baterako maileguan uztea.

6. Berriobeiti. Garbikundearen eliz-parrokiako erretaula nagusia zaharberritzea.

7. Cadreita. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Erretaulak.

8. Caparroso. Sotoko Ama Birjina ermitako "Txaluparen mirakulua" mihisea eta Ama Birjina Haurra-ekin tailla zaharberritzeko diru-laguntza.

9. Zarrakaztelu. Nuestra Señora de la Oliva abade-etxe zistertarreko urregintzako hiru pieza zaharberritzea.

10. Tafalla. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Etxanoko San Pedroko erretaula.

11. Espartza Zaraitzu. San Tirso ermitako horma-pinturak buruzko txostena.

12. Ezkirotz. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Adriango eliz-parrokiako ondasun higigarriak eta horma-pinturak

13. Lizarra. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Ama birjinak lekualdatzea, Andre Mariari buruzko topaketarako.

14. Etxauriko eliz-parrokiako organoa zaharberritzeko eskaera.

15. Iturmendi. San Migel eliz-parrokiako bi kanpai zaharberritzea.

16. Leringo tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Jasokundearen elizako erretaulak eta atea desmuntatzea.

17. Leringo tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Jasokundea elizako burukoan jardutea.

18. Lesaka. Eliz-parrokiako organoa zaharberritzeko proiektua baloratzea.

19. Lesaka. San Martin eliz-parrokiako erretaulatan xilofagoen aurkako tratamendua egiteko diru-laguntza.

20. Los Arcosko tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Santa Maria eliz-parrokiako horma-pinturak.

21. Mendigorria. Santa María elizako erretaulan egindako zaharberritzeari buruzko txostena.

22. Muruzabal. San Esteban eliz-parrokiako San Bartolomeren tailla zaharberritzeko diru-laguntza.

23. Erriberri. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Pedro eliz-parrokiako erretaula nagusia.

24. Iruña. San Agustin erretaulako xilofagoen plagari buruzko txostena eta Katedraleko Babesaren Atariaren funtzionamendua.

25. Iruña. San Lorenzo eliz-parrokiako organoa zaharberritzeko diru-laguntza.

26. Azkoién. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Juan Ebanjelariaren eliz-parrokiako erretaula, ornamentuak, urregintza-lanak eta obrak.
27. San Adrián. San Adriango kutxatila eta erlikia-ontzia zaharberritzeko diru-laguntza, lapurtua izan eta berreskuratu ondoren.
28. San Adrián. Eliza zaharreko erretaulak zaharberritzeko diru-laguntza.
29. San Adrián. Eliza zaharra zaharberritzeko obrei buruzko txostena.
30. Zangoza. Andre Maria errege elizaren prozesio-kustodiaren kontserbazio-egoerari buruzko txostena.
31. Tuterá. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Santa Ana elizako erlikia-ontziko custodia.
32. Tuterá. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Galarragako kaliza.
33. Viana. Andre Maria parrokiako presbiterioko eta erretaula nagusiko horma-pinturei buruzko txostena.
34. Villatuerta. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Jasokundearen parrokiako erretaulak.

## 2009

1. Aburregaina. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena.
2. Aguilar Kodes. San Bartolome ermitako Krismoian urgentziaz esku hartzeari buruzko txostena.
3. Agoitz. San Migel eliz-parrokiako koruko aulkiteria zaharberritzeko diru-laguntza.
4. Ardatz Itzagaondoa. Paramentuen eta erretaulen ikuskatze teknikoari buruzko txostena.
5. Aiegi. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Martin eliz-parrokiako 1785eko kanpaia.
6. Azuelo. San Jorge monasterioko "Calvario con Santo Abad" mihisea zaharberritzeko diru-laguntza.
7. Cadreita. San Migel eliz-parrokiako Jasokundearen erretaula zaharberritzeko diru-laguntza.
8. Corella. San Migel eliz-parrokiako organoa zaharberritzeko obren egoerari buruzko txostena.
9. Ezkirotz. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Adriango eliz-parrokiako koruko Errenazimendu garaiko esgrafiatuak.
10. Eulate. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Martin eliz-parrokiako erretaula nagusiaren tratamendua.
11. Garde. Zuberoko ermitako alboetako erretaulak zaharberritzeko diru-laguntza.
12. Goizueta. Magdalena eta San Lazaro ermitako erretaula nagusia zaharberritzeko diru-laguntza.
13. Izize. Eliz-parrokiako paramentuen eta erretaula nagusiaren tratamendurako ikuskatze-txostena.
14. Lodosa. Alabarderoen Kofradiaren ondasunen titulartasunari buruzko kontsulta.
15. Los Arcos. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Santa Maria eliz-parrokiako erretaula nagusia garbitzea.
16. Muetz. Eliz-parrokiako paramentuak pintatzeari buruzko aholkua.
17. Murelu-Deierri. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Esteban eliz-parrokia.
18. Muzki. Magdalena eliz-parrokiako erretaula nagusiar buruzko txostena.
19. Erriberri. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Santa Maria elizako Ama Birjina Arrosariokoaren erretaula.
20. Erriberri. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Pedro eliz-parrokiako Santiagoren erretaula eta San Andresen erretaula.
21. Erriberri. San Pedro eliz-parrokiako erretaula nagusia eta Arrosarioaren erretaula zaharberritzeko diru-laguntza.
22. Iruña. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Katedraleko Museoko Hilobi Santuaren errelikia-kutxa maileguan ematea Murtziako aldi baterako erakusketarako.
23. Iruña. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Katedraleko Karlos III.aren hilobiko solte dagoen erregutzailea.
24. Iruña. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Katedraleko San Agustin erretaularako xilofagoen aurkako tratamendua.
25. Iruña. Paldarren Elizako xilofagoen erasoari buruzko txostena.
26. Iruña. San Migel parrokiako erretaula nagusia zaharberritzeko esku-hartzea.
27. Orreaga. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Ebanjelioen liburu erro-manikoaren azalak. Erakusketaren ondorengo kontserbazio-egoerari buruzko txostena.
28. San Adrián. Eliz-parrokiako erretaula nagusia zaharberritzeko diru-laguntza.
29. Alesbes. Eliz-parrokiako atariko pintura-lanei buruzko informazio-eskaera.



## 2010

1. Azkona. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Mendigañako Ama Birjina ermita zaharberritzea.
2. Cintruénigo. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Joan Bataiatzailea eliz-parrokiako Ama Birjina Arrosariokoaren erretaula eta Gurutziltzatuaren tailla
3. Erriberri. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Pedro eliz-parrokiako sakristia barrokoa zaharberritzea.
4. Iruña. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. San Migel eliz-parrokiako erretaularen tratamendua.
5. Iruña. Jaiotza bat bere ontziarekin (BIC) Agustindar Errekoletoen Erkidegotik Nafarroako Unibertsitatera maileguan eramateari buruzko komunikazioa.
6. Iruña. Ama Agustindar Errekoletoen komentuko ondasunak ekitaldi liturgiko baterako Fiteroko Santa María la Real monasteriora maileguan eramateari buruzko komunikazioa.
7. Iruña. Ama Agustindar Errekoletoen komentuko "Catalina de Alvarado andrearen erretratua" mihisearen balorazioa, erakusketa baterako.
8. Tuterako. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Katedraleko erretaula nagusiko sagraioa.

## 2011

1. Oibar. San Pedro elizan lurperatuta aurkitutako Erdi Aroko taillak eta ehun margotua aurkitzeari buruzko txostenak.
2. Altzorritz. Kanpaiak kontserbatzeari buruz aholkua emateko ikuskatzearen txostena.
3. Argiñaritz. San Martin eliz-parrokiako erretaula nagusian esku hartzeari buruz aholkua emateko ikuskatze teknikoko bisitaren txostena.
4. Aritzala. Montalbano ermitaren estalduretan esku hartzeko azterlana eta proposamena.
5. Bera. San Antonio eliz-parrokiako erretaula nagusian eta Sortzez Garbiaren eta Andre Maria Doloreetakoaren tailetan esku hartzeko proiektuari buruzko txostena.
6. Betelu. Santa Gurutze ermitako harrizko gurutziltzatua zaharberritzea.
7. Lizarra. Santa Klara (klaratarak) monasterioko piezak zaharberritzeko proiektua, Erriberriera eramateko.
8. Fitero. Kutxeta-multzo baterako erakusketarako beira-arasa egiteari buruzko txostena.
9. Gaskue. Hormetako estaldurak kontserbatzeari buruz aholkua emateko ikuskatzearen txostena.

10. Elo. Kanpaiak kontserbatzeko aholkua emateko ikuskatzearen txostena.
11. Erriberri. San Pedro elizako San Pedro Nolasco eta Santa Katalina mihiseak zaharberritzeko baimena.
12. Erriberri. Santa Maria elizako fatxadako eskultura-zatiak askatzeari buruzko txostena.
13. Erriberri. Tutoretzapeko ondasun higigarrietan esku hartzeko baimena. Tuterako Kaputxinoen Elizako Sortzez Garbiaren mihisea lekuz aldatzea.
14. Iruña. Fiteroko eliz-parrokiako piezak Katedralean gordailatzeko entregatzeari buruzko aktak.
15. Iruña. Irantzuko Monasterioko eta Fiteroko Monasterioko organoak Musikaren hirira eramateko baimena.
16. Iruña. Agustindar Errekoletoen komentuko kapitulu-gelako intsektu-kentzeko lanak kontratatzearen aholku-txostena.
17. Iruña. Katedraleko zuraren aretoko horma-prospekzioari buruzko txostena.
18. Paternain. Elizako dorreko erlojuan jarduteari buruzko txostena.
19. Getze-Ibargoiti. Kanpaiak kontserbatzeko aholkua emateko ikuskatzearen txostena.
20. San Adrián. Eliza zaharrean obrak egin bitartean erretaulak babesteko gomendioei buruzko txostena.

## 2012

1. Aralar. Marfilezko kutxetari buruzko txostena.
2. Ardatz Itzagaondoa. Elizaren kontserbaziorako aholkua.
3. Armañanzas. Eliz-parrokiako kristoa kontserbatzeko eta zaharberritzeko proiektua.
4. Bearin. Lizarrako San Pedro de la Rúa eliz-parrokiako mihiseak lekuz aldatzeari buruzko txostena.
5. Zarrakastelu. La Oliva Monasterioko sagraioa zaharberritzeko proiektua.
6. Cascante. La Victoria eliz-parrokiako San Migelen eta Koroatzearen erretaulak tratatzeko eta zaharberritzeko baimena.
7. Kaseda. San Zoilo ermitako horma-pinturetan esku hartzeko eta haiek baloratzeko proiektua.
8. Cintruénigo. San Joan Bataiatzailearen eliz-parrokiako Epifaniaren erretaula zaharberritzeko baimena.
9. Zizur Nagusia. San Andres Apostolua elizako erretaula nagusia zaharberritzeko aurrekontua.
10. Lizarra. San Pedro de la Ruako ondasun higigarriak kontserbatzeko txostena eta gomendioak.

11. Lizarra. Santa Klara komentuko "Magdalena-ren trantsitua" mihisean esku hartzeko proposamena.
12. Fitero. Elizako koroan termiten aurkako tratamendua egiteko proposamena.
13. Goñi. San Ziriako eliz-parrokia ikuskatzeko txostena. Eliza zaharraren kontserbazio-egoera eta proposamenak.
14. Geretz. San Sebastian eliz-parrokiako ondasun higigarrien eta estalduren kontserbazio-egoeraren ikuskatze teknikoko txostena.
15. Gergetiain. Ondasun higigarrien lekualdatzearen jarraipena elizan obrak dauden bitartean.
16. Lerin. Elizako organoan egin beharreko jarduketari buruzko txostena.
17. Lodosa. San Migel elizako erretaulak eta aho-ts-islagailuetan egin beharreko garbiketako eta intsektuak kentzeko tratamendua amaitzeari buruzko txostena.
18. Makirriain. Santa Catalina elizako erretaula nagusiaren kontserbazioari buruzko txostena eta gomendioak.
19. Meotz. Elizaren kontserbazioaren egungo egoerari buruzko txostena eta gomendioak.
20. Erriberri. San Pedro eliz-parrokiako mihise zaharberrituen kontrolari buruzko txostena.
21. Iruña. Aita Kaputxinoen elizako Alonso Cano-ren Kristoaren irudia zaharberritzeko baimena.
22. Iruña. Agustindar Errekoletoen komentuko termiten aurkako tratamenduari buruzko txostena.
23. Iruña. Agustindar Errekoletoen komentuko Ama Birjina Haurrarekin mihisea zaharberritzeko proposamena.
24. Iruña. Paldarren eliz-parrokiako erretaula nagusian esku hartzeko proiektua.
25. San Adrián. Eliz-parrokia zaharraren zaharberritzeari buruzko ikuskatze-txostena.
26. Doneztebe. Eliz-parrokiako Kristo zaharberrituari buruzko jarraipen-txostena.
27. Tutera. Katedraleko sakristiaren aurrekoan erakusgai dauden dokumentuen kontserbaziorako aholkularitza-txostena.
28. Tutera. Katedraleko klaustrotik eroritako kapitelen zatien jarraipenari buruzko txostena.
29. Uxue. Andre Maria Errege elizaren portadako ondasun higigarrien kontserbazioari buruzko txostena eta gomendioak.
30. Viana. San Pedro elizaren eskultura-ale batzuk zaharberritzeko erabilitako materialei buruzko txostena.
31. Villafranca. Eliz-parrokiako sakristiako jantzien gaineko erakusketari buruzko aholkua.
32. Zuhatsu Itzagaondoa. Ama Birjina Haurrarekin irudiaren zaharberritzearen jarraipena.

2013

1. Oibar. Santa Maria basilikako pintura eta erretaula nagusia zaharberritzeko aurkeztutako proiektuak.
2. Antsoain. San Kosme eta San Damian elizako obren ikuskatze-txostena.
3. Aralar. Erretaulako esmalteen kopiari buruz Arzapezpikutzari egindako informazio-eskaerari buruzko txostena
4. Berriogoi. Santa Eularia eliz-parrokiako erretaularen ikuskatze teknikoko txostena.
5. Cadreita. Santa Fe eta Mariaren Bihotza irudien zaharberritzerako baimena.
6. Kaseda. Jasokundearen elizako itoginek erretaula nagusian izan duten afekzioari buruzko ikuskatze-txostena.
7. Eratsun. Eliz-parrokiako erretaulak zaharberritzeko proiektuak.
8. Elizagorria. Ama Birjina Haurrarekin taillan egindako zaharberritze-lanari buruzko txostena.
9. Meotz Longida. Ermitako Santa Kolonba taillaren kontserbazio- eta zaharberritze-proiektuak.
10. Erriberri. Klaratarren komentuko "Magdalena-ren transfigurazioa" mihisea zaharberritzeko aurkeztu diren esku hartzeko proiektuak.
11. Iruña. Katedraleko Klaustroko garbitokiaren ondoan zoruan xafla bat eta lore batzuk jartzeari buruzko ikuskatze-txostena.
12. Iruña, Katedraleko beirateen prebentziozko kontserbaziorako planari buruzko txostena
13. Jaitz. Ermitako San Pedro tailla kontserbatzeari eta zaharberritzeari buruzko aholku-txostena.
14. Santsol. San Zoilo elizako kupula zaharberritzeko aurkeztutako proiektuak.
15. Sorlada. San Gregorio basilikako kutxeta lekuz aldatzeko baimena.
16. Sorlada. San Gregorio ostatuan eta basilikan termiten aurkako tratamendua egiteko proposamenak.
17. Tutera. Katedraleko klaustroan eta Kristo Eskolan erakutsitako piezak lekuz aldatzeari buruzko txostena.
18. Tutera. Katedraleko eskultura batetik eroritako zatiei buruzko txostena.
19. Tutera. Dominikoen monasterioko ondasunak Casalarreina monasteriora (Errioxa) eramatzeari buruzko alde aurretiko ikuskatzea.

20. Tuter. Palacio Decanal deitutakoan erakusketak egiteko aholku-eskaera.

21. Villafranca. Eliz-parrokiako organoaren egoerari buruzko txostena.

22. Zarikiegi. San Andres eliz-parrokiako erretaula nagusiari buruzko ikuskatze-txostena.

#### 2014

1. Antsoain. San Kosme eta San Damian eliz-parrokiako Ama Birjinaren irudia lekuz aldatzeko eta kopiatzeko baimena.

2. Berriogoti. Santa Eulalia eliz-parrokiako erretaula nagusiaren desmuntatzea eta intsektu-kentzea kontratatzea.

3. Zarrakastelu. Ama Birjinaren irudiaren polikromia-aldaketari buruzko komunikazioa.

4. Lizarra. San Migel eliz-parrokiako portadaren egoerari buruzko ikuskatze-txostena.

5. Lakar. Santa Maria Egiarte ermitaren ikuskatze-txostena.

6. Lapoblación. Jasokundearen eliz-parrokiako alboko erretaula zaharberritzeko diru-laguntzaren eskaera.

7. Los Arcos. Santa Maria eliz-parrokiako Santa Isabel kaperako ondasun higigarrietan esku hartzeko proiektua.

8. Muzki. Elizako erretaula nagusiaren egoerari buruzko txostena, teilatuaren afekzioa dela eta.

9. Otsagabia. Muskildako Ama Birjinaren ermitako horma-pinturetako esku-hartzea.

10. Erriberri. San Pedro eliz-parrokiako palioan esku-hartzeri buruzko baimena.

11. Iruña. Katedraleko Sancho Sánchez de Oteiza apezpikuaren hilobiko eskultura-taldeei buruzko txostena.

12. Iruña. Agustindar Errekoletoen komentuko zurezko piezen tratamenduari buruzko txostena.

13. Orreaga. Antso Azkarraren hilobiari buruzko ikuskatze- eta berrikuste-txostena.

14. Santakara. Jasokundearen Andre Mariaren eliz-parrokiako erretaula nagusia zaharberritzeko baimena.

15. Sesma. Eliz-parrokiako sakristia berriz aipatzeari buruzko aholku-txostena.

#### 2015

1. Corella. Karmeldar Oinutsen komentuko elizaren erretaula nagusiko Arazeliko Ama Birjinean esku hartzeko proposamena.

2. Corella. Karmeldar Oinutsen komentuko portadan esku hartzeko proiektua.

3. Deikastelu. Iratxeko erakusketaren protokoloa eta kalteei buruzko txostena.

4. Lantz. Erretaula nagusiaren proiektua.

5. Legaria. Desagertutako Gestas irudiaren kopia egiteko baimen-eskaera.

6. Legaria. Erretaula zaharberritzeko baimenaren eskaera.

7. Meotz. Kanpaien zaharberritze orokorrerako aurrekontua.

8. Iruña. Meozko Ama Birjina katedraletik Meozko elizara eramateko baimena.

9. Iruña. Katedraleko San Gregorio Ostiakoaren kuxteta lekuz aldatzeko baimena.

10. Iruña. "Iruñeko apezpiku eta Zaragozako artzapezpiku On Francisco Añoa y Bustoren erretaula" mihisea kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzerako proiektua.

11. Iruña. "San Ferminen" mihisea kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzerako proiektua. Katedrala

12. Sesma. Santa Maria eliz-parrokiako organoaren kutxaren zaharberritzerako alde aurreko txostena.

13. Sesma. Santiago elizako alboko erretaularen proiektua.

14. Urrotz. Jasokundearen elizako organoa egokitzeko txostena.

15. Urrotz-Hiria. Jasokundearen eliz-parrokiako erretaula nagusia kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzerako baimena.

16. Viana. Santa Mariaren Jasokundea eliz-parrokiako "Virgen de Cuevas" proiektua.

17. Zarikiegi. San Andres elizako erretaula nagusia kontserbatzeko eta zaharberritzeko esku-hartzea baimentzeko txostena.

#### 2016

1. Artaxoa. San Santurnino elizako bi kanpai zaharberritzeari buruzko txostena.

2. Gazteluberri. Gazteluberriko erliebeen azterlanen emaitzari buruzko informazioa.

3. Lizarra. Xilofagoen kontrako tratamendurako aurrekontua. San Pedro de la Rúa.

4. Ilurdotz. Andre Maria Arrosariokoaren eliz-parrokiako kanpaien zaharberritzeari ekiteko egindako ikuskatze teknikoko bisitaren txostena.

5. Iruña. Iruñeko Katedraleko klaustroan ekainaren 17an ongintzazko afari bat egiteari buruzko txostena.

6. Iruña. Azaroaren 13an egindako "Mater Misericordiae" ama birjinaren irudien kontzentrazioaren jarraipena.

7. Nafarroako gotiko berantiarreko eskulturak birbaloratzeko eta berreskuratzeko proiektua.
8. Orreaga. Orreagako Ama Birjina eskaneatzeko baimena.
9. Orreaga. Ama Birjinaren irudia kopiatzeko proiektua eta eskaera (BIC).
10. San Gregorio Ostiakoa. San Gregorioren kuxteta lekualdatzeko baimena San Gregorio Ostia-koaren urteurrena ospatzeko.
11. Aralarko San Migel. Aralarko aurreko aldeko jarduketan jarraipena.
12. Zangoza San Roman kaperako kupula zaharberritzeko proposamena. Santiago eliza.
13. Katalain. Katalaingo Ama Birjinaren irudia kopiatzeko baimena.
14. Tuter. Museo Decanal deitutakorako jarraibideak, TSAk egin beharreko kontserbazio-baldintzei buruzko azterlanaren gainekoak.
15. Tuter. Museo Decanal deitutakorako kontserbazio-baldintzak hobetzeko jarraibideak.
16. Tuter. San Dionis kaperako gurutziltzatuaren, aukiteriaren eta erretaularen kontserbazioan eta zaharberritzean egindako esku-hartzearen oroitidazkia. San Dionis kaper. Katedrala.
17. Ubago. San Martin de Tours eliz-parrokiako barrualdeko estalduren egoera.
18. Esa. Eliza berria zaharberritzeko proiektua.
19. Zuñiga. Santa Maria eliz-parrokiako horma-pinturen zundaketa egiteko proposamena.

## 2017

1. Artaxoa. San Saturnino elizako kanpai hautsian egin beharreko lanen oroitidazki deskriptiboa.
2. Azkona. Santa Catalina ermitako horma-pinturako eta sarrerako ateko esku hartzea.
3. Lizarra. Emaitei buruzko amaierako txostena. Termitak gerarazi eta deuseztatzeko sistema. San Pedro de la Rúa eliza.
4. Nafarroako elizetako eta erakundeetako ehune eta brodatu zaharrei buruzko azterlan historiko artistikoa (XIV-XIX mendeak).
5. Otadia. Esku hartzeko proposamena. San Kristo ermitako horma-pinturak.
6. Aralarko San Migel. Aralarko erretaulan isupu batez bereizitako substantzia zuriska baten lagin batean ageri diren materialen azterlana.
7. Tuter. Katedraleko hegoaldeko atariko fatxada barrokoan esku hartzeko proposamena.
8. Tuter. Katedraleko hegoaldeko atariko kasetoidurako hagetan esku hartzeko proposamena.
9. Zarikiegi. San Andres eliz-parrokiako kanpaa birfunditzeko, zurezko uztaietarako eta kanpaiak elektrifikatzeko aurrekontua.

## 2018

1. Kaseda Horma-pinturetan esku hartzeari buruzko oroitidazkia.
2. Etxauri. Santa Eulaliako kanpaiak zaharberritzeko proiektua.
3. Fitero. Obren oroitidazkia. Andre Maria errege eliz-parrokia.
4. Mendigorria. Andiongo Andre Mariaren ermitako aldarearen aurreko arkuan dagoen horma-pintura zaharberritzeko eta leheneratzeko tratamenduaren aurrekontua.
5. Orisoain. San Martin Toursekoaren eliz-parrokiako horma-pinturetan zundaketa egiteko proposamena eta oroitidazkia.
6. Oteitza. San Migelen taillari buruzko amaierako txostena.
7. Iruña. Ermitagañako Santa Maria eliz-parrokiako aldarean eta bi tailletan esku hartzeari buruzko amaierako txostena.
8. Iruña. San Migel eliz-parrokiako erretaula nagusiko esku hartzeari buruzko amaierako txostena.
9. Iruña. San Lorentzoko horma-pinturen azterlana egiteko proposamena.
10. Zangoza. Santa Maria eliz-parrokiako San Gregorio zurezko tailla zaharberritzeko proposamena.
11. Tuter. Katedraleko fatxada barrokoa eta hegoaldeko atariko kasetoidurako hagak zaharberritzea.
12. Zaritieggi. Kanpaiak zaharberritzea.
13. Zuñiga. Horma-pinturen zundaketaren oroitidazkia.

Hirugarrena.- Daukan ondare artistiko eta kulturala desegokiro kontserbatu edo kudeatzeagatik Elizari azken hogeitun urteotan irekita-ko zehapen-espeditenteen zerrenda.

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiaren 302/2018 Ebazpena, irailaren 27koa, zeinaren bidez hasiera ematen baitzaio Lizarrako San Migel eliz-parrokiaren eta Karmacolor enpresaren aurkako zehapen-prozedurari, Nafarroako Kultur Ondarearen arloko arauhauste administratibo larri baten ustezko erantzuleak izateagatik.

Hori jakinarazi ahal dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria: Ana Herrera Isasi

**Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuaren eta Estatuko Gobernuaren artean zer akordio sinatu edo adostu diren —edo sinatzeko edo adosteko bidean dauden—, “gastu-araua” izenekoetik heldutako mugak gainditze aldera.**

*FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuaren eta Estatuko Gobernuaren artean zer akordio sinatu edo adostu diren —edo sinatzeko edo adosteko bidean dauden—, “gastu-araua” izenekoetik heldutako mugak gainditze aldera. Galdera 2018ko irailaren 10ko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du “gastu-araua” izenekoari buruz (9-18/PES-0160). Galdera hori 2018ko ekainaren 28ko 2825. sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Gastu-arauak gaur egun Nafarroarentzat duen muga nagusia da ezin dela 2017ko ekitaldiaren amaieran lortutako superabit berezia inbertitu zorra amortizatzeko ez bada.

Gastu-arauaren aginduekin ados egon zein ez egon, arau hori Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 12. artikuluan jasota dago eta, horrenbestez, nahitaez betetzekoa da Nafarroako Foru Komunitatearentzat, eta azken horrek ez du eskumenik ez hura aldatzeko, ez eta indarririk gabe uzteko ere; halere, ekitaldiaren itxieran, bi administrazioen, —Estatukoa eta Nafarroa-

koa— arteko informazio truke tekniko bat egoten da, irizpideak konpentsatzeko edo gerta daitezkeen desadostasunak aztertzeko.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Gobernuak ministerioari hainbat aldiz eman dio jakitera, Ogasuneko ministro berria eta haren lantaldea ekainaren 7an hasi zirenetik, gai honi heldu egin behar zaiola. Gainera, kontseilari honek gutun bat bidali zion Aurrekontuen eta Gastuen Estatu Idazkaritzari apirilaren 1ean, eta hartan berariaz baimena eskatu zion superabitaren zati bat —zorra amortizatu ondoren geratzen den zatia— inbertitzeko ikuspuntu finantzariotik jasangarriak diren inbertsioetan. Kontseilari honek, halaber, inbertsio horiek idatziz zehaztu zizkion estatu idazkariari berari, behin laukoak Parlamentuan xede hori zuen foru lege proposamena aurkeztuta.

Astebete iraganda, irailaren 26an, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak ministerioaren lehenengo erantzuna jaso zuen. Zehazki, estatu idazkariak, kasu honetan Ogasunekoak, telefonoz deitu zion kontseilari honi ikuspuntu finantzariotik jasangarriak diren inbertsioen zerrenda jaso zutela adieraziz, eta eskatuz, halaber, zerrenda hori haren Idazkaritzara ere igortzeko. Horixe egin nuen une hartan bertan. Halaber, estatu idazkariak aurreratu zidan baietz, gastu hori baimenduko zutela, baina ez osorik; baina ez zuen zenbatekoa zehaztu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Ogasuneko eta Finantza Politikako Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

## **Galdera, Tafallan uztailaren 13an izandako ekaitzak eragindako kalteak direla-eta Nafarroako Gobernuak abian jarritako jarduketei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tafallan uztailaren 13an izandako ekaitzak eragindako kalteak direla-eta Nafarroako Gobernuak abian jarritako jarduketei buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tafallan uztailaren 13an izandako ekaitzak eragindako kalteak direla-eta Nafarroako Gobernuak abian jarritako jarduketei buruz (9-11-/PES-00161). Hona hemen Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio kontseilariaren erantzuna:

1.- Nekazaritza Zerbitzutik honako honen berri eman didate:

– Nekazaritza-aseguruek guztiz estaltzen dituzte ekaitzek nekazaritza-produkzioetan eragindako kalteak. Departamentu honen jarduera guztien xedea da nekazariak aseguruak egin ditzatela sustatzea, horixe baita nekazaritza-sektorearen arriskua kudeatzeko modurik egokiena. Jarduketa horiek guztiak aurrez egiten dira, aseguruak egin daitezten sustatuz; horretarako, aseguruetara bideratutako gastua handitu da: 2.811.139,36 eurokoa izatetik 3.656.741,82 eurokoa izatera pasatu da aurten. Nafarroako Gobernuak nekazaritza-asegurua kontratatzearen kostura bideratzen dituen laguntzez gainera, zuzeneko laguntzak ere eman dira, halako moduz non ordaindu egin behar baitira kontratazioaren anean aseguru-dunari aitortzen zaizkion laguntza guztiak. Horretarako, aseguruetarako laguntza-gastuen partida zabalgarria dela zehaztu da, behar adina kreditu eduki ahal izateko. Hori dela eta, departamentu honek aurrera eraman dituen ekintza guztiak urte osoan zehar egiten dira, ezbeharrak gertatzen diren unean nekazariak eta abeltzainek erabateko estaldura izan dezaten.

– Aipatu dugun bezala, nekazaritza-produkzioetan eragindako galeren kuantifikazioa nekazaritza-aseguruen testuinguruan dago, eta konpainiak berak dira kalteak tasatu eta dagokien kalte-ordaina zehazten dutenak.

– Ez dira errenta-galerarako laguntzak aktibatu, zeren eta laguntza horiek bideratuta baitaude ezbehar-mota dela-eta aurrera eraman ezin izan den jarduera baten galerak estaltzera. Hori uholde kasuetan gertatzen da askotan, zeren eta urak luze irauten baitu eremu jakin batzuetan, eta horrek laboreak eragozten baititu. Nekazaritza-aseguruek egiazko galera batzuei, eta ez aurreikus daitezkeenei, estaldura ematen dietenez, Administrazioa izaten da kasu horietan laguntza-mekanismoak aktibatzen dituenak. Ekaitza kasuak besterik dira, zeren eta haien kalteak heldu baitira uraren kopurutik eta indarretik, bai eta harekin batera eror daitekeen txingorretik ere, eta kalteak zuzenak baitira une horretan jarrita dauden laboreetan (horiek bai, aseguruak estalita daude).

2.- Eta aipatu berri dugunaren osagarri, Toki Antolamendurako Zerbitzuak honako informazio hau eman dit:

– 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak, 4. artikuluan, ezartzen du Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren ataletarako zenbateko osoaren 100eko 5eraino gordeko dela larrialdiko eskaeraren kalifikazioa dutenei eta haien inbertsio osagarriei aurre egiteko, edo salbuespeneko araubideko finantzabidea behar duten inbertsioei aurre egiteko, eta aipatzen du ezen, betiere, larrialdizat kalifikatuko direla hornidurako, saneamenduko eta euri-uretarako toki sare guztiak, arriskua sortu edo arazo sanitario larriren bat eragiten badute, eta kaleko argiak ere bai, arriskua sortu edo arazo larriren bat eragiten badute.

– Foru lege horren beraren 19. artikulua larrialdiko prozedura arautzen du, eta ezartzen du toki inbertsioen planean sartzen ahalko direla azpiegiturak eta ekipamenduak berehalakoan lehengoratzeko beharrezkoak diren jarduketak, hondamendiak tartean direla egin beharrekoak, edo pertsonen nahiz ondasunen segurtasunerako arriskua dagoenean.

– Bestalde, 2018ko apirilean zehar, Nafarroako Atariko Zerbitzuen Zorroan fitxa bat jarri zen, toki entitateek haren bitartez komunikatu ahal izan zitezaten 2017-2019 urteetako toki inbertsioen planean jasotako toki azpiegituretako kalteak, bai eta udalaren edo kontzejuaren eskumenekoak diren beste batzuetan izandakoak ere, 2018ko apirilko uholdeen eraginez gertatu direnak. Fitxa horrek zabalik jarraitzen du. Halere, joan den uztailaren 13ko ekaitza dela eta, zuzendaritza nagusi honek

inongo jarduketarik ez du egin, zeren eta ez baitzaio horren berri eman.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, Josefina Arregui zentroarekiko ituna berritzeari dagokionez Osasun Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Josefina Arregui zentroarekiko ituna berritzeari dagokionez Osasun Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-18/PES-00162) Josefina Arregui zentroarekiko ituna berritzeari dagokionez Osasun Departamentuak darabilen aurreikuspenari buruz. Hauxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Gai horri buruz, beste talde batzuek berriki aurkeztutako ekimenetan azaldutako informazioa berretsi beharra dago.

Osasun Departamentuak Josefina Arregui Klinikarekin duen kontratua 2018ko abenduaren 31n amaitzen da.

Une hauetan, Osasun Departamentua aztertzen ari da zein diren gaur egun Josefina Arregui Klinikak ematen dituen zerbitzuak eta zerbitzu horiek direla-eta Osasun Departamentuaren estrategietatik heldu diren laguntza-beharrizan berriak.

Azterlan horretan definituko dira prestaziorako kontratazioa edo ituntzea eska dezaketen arloak, bai eta hori aurrera eramateko prozedurarik egokiena ere, eta, orobat, epeei buruzko aurreikuspen bat egin ahalko da.

Osasunaren eta gizarte zerbitzuen arloetan Itun Sozialei buruzko azaroaren 16ko 13/2017 Foru Legea erabiltzeko aukerari dagokionez, berrets daiteke Osasun Departamentua aztertzen ari dela zein den prozedurarik egokiena, kontuan izanda halako ezaugarriak dituen prozesu batek berezko dituen zailtasun teknikoak, kostuei eta adjudikazio-irizpideei dagokienez.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

## **Galdera, aurreko legegintzaldietako jarduketan ondoriozko prozesu-kostuak direla-eta Nafarroako Gobernuak jasotako zenbatekoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, aurreko legegintzaldietako jarduketan ondoriozko prozesu-kostuak direla-eta Nafarroako Gobernuak jasotako zenbatekoari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak 9-18/PES-00163 idatzizko galdera egin du. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariak, hari erantzuteko, Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariaren 2018ko irailaren 28ko txostena eranstean dizu, non eskatutako informazioa ageri baita.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 1ean

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M<sup>a</sup> José Beaumont Aristu

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderari dagokionez (9-18/PES-00163), honako hau informatu behar dut:

Zerbitzu honek Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioa ordezkatuz eta bera aldeztuz parte hartzen duen prozedura judicialak kudeatzeko Aholkularitza Juridikoak daukan aplikazioan, ez dira prozedura horiek sailkatuta ageri aurkaratu diren jarduketak legegintzaldi batekoak edo beste-koak izatearen arabera. Hori dela eta, haien arteko alderaketa egiteko daturik ez dago.

Hori gorabehera, aplikazio horretan jasotzen diren beste datu batzuk aztertuz eta, askotan, Aholkularitza Juridiko honetan dauden espedienteak ere fisikoki aztertuz, ondoren aipatzen duguna ondorioztatu dugu.

Aurreko legegintzaldietako jarduketek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren alde sortu dituzten kostu judizialen zenbatekoa, 2015eko urtarrilaren 1etik 2018ko ekainaren 7ra, 1.814.043,93 eurokoa izan da; kopuru horretatik, 967.461,41 euro ordainketarako borondatezko epean ingresatu dira eta 846.582,52 euro, berriz, Nafarroako Zerga Ogasunaren Diru-bilketa Zerbitzuari igorri zaizkio, premiamendu-prozeduraz kobra ditzan.

Hala eta guztiz ere, datu horiek ezin direnez automatikoki lortu zerbitzu honek daukan aplikazioetik, ezin da baztertu prozeduraren bat egotea zenbateko horretan jaso ez dena.

Eta hala jasota uzten da, behar diren ondorioak izan ditzan,

Iruñean, 2018ko irailaren 28an

Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuko zuzendaria: M<sup>a</sup> Belén Cilveti Gubia



## **Galdera, hala hiri-altzarietan nola nekazaritza-produkzioetan fenomeno atmosferiko zakarren eraginez izandako kalteak eta txikizioak direla-eta Nafarroako Gobernuak abian jarritako jarduketei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, hala hiri-altzarietan nola nekazaritza-produkzioetan fenomeno atmosferiko zakarren eraginez izandako kalteak eta txikizioak direla-eta Nafarroako Gobernuak abian jarritako jarduketei buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du hala hiri-altzarietan nola nekazaritza-produkzioetan fenomeno atmosferiko zakarren eraginez gertatu diren kalteak eta txikizioak direla-eta Nafarroako Gobernuak abian jarritako jarduketei buruz (9-11/PES-00164). Hona hemen Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren erantzuna:

1.- Nekazaritza Zerbitzutik honako honen berri eman didate:

– Nekazaritza-aseguruek guztiz estaltzen dituzte ekaitzek nekazaritza-produkzioetan eragindako kalteak. Departamentu honen jarduera guztien xedea da nekazariak aseguruak egin ditzatela sustatzea, horixe baita nekazaritza-sektorearen arriskua kudeatzeko modurik egokiena. Jarduketa horiek guztiak aurrez egiten dira, aseguruak egin daitezen sustatze aldera; xede horrekin, aseguruetara bideratutako gastua handitu da: 2.811.139,36 eurokoa izatek 3.656.741,82 eurokoa izatera pasatu da aurtun. Nafarroako Gobernuak nekazaritza-asegurua kontratatzearen kostura bideratzen dituen laguntzez gainera, zuzeneko laguntzak ere eman dira, halako moduz non ordaindu egin behar baitira kontratazioaren unean aseguru-dunari aitortzen zaizkion laguntza guztiak. Horretarako, aseguru-erakundearen laguntza-gastuen partida zabalgarria izatea erabaki da, behar adina kreditu eduki ahal izateko. Hori dela eta, departamentu honek aurrera eraman dituen ekintza guz-

tiak urte osoan zehar egiten dira, ezbeharrak gertatzen diren unean nekazariak eta abeltzainek erabateko estaldura izan dezaten.

– Aipatu dugun bezala, nekazaritza-produkzioetan eragindako galeren kuantifikazioa nekazaritza-aseguruen testuinguruan dago, eta konpainiak berak dira kalteak tasatu eta dagokien kalte-ordaina zehazten dutenak.

– Ez dira errenta-galerarako laguntzak aktibatu, zeren eta laguntza horiek bideratuta baitaude ezbehar-mota dela-eta aurrera eraman ezin izan den jarduera baten galerak estaltzera. Hori uholde kasuetan gertatzen da askotan, zeren eta urak luze irauten baitu eremu jakin batzuetan, eta horrek laboreak eragozten baititu. Nekazaritza-aseguruek egiazko galera batzuei, eta ez aurreikus daitezkeenei, estaldura ematen dietenez, Administrazioa izaten da kasu horietan laguntza-mekanismoak aktibatzen dituenak. Ekaitza kasuak besterik izaten dira, zeren eta haien kalteak heldu baitira uraren kopurutik eta indarretik, bai eta harekin batera eror daitezkeen txingorretik ere, eta kalteak zuzenak baitira une horretan jarrita dauden laboreetan, zeinak aseguruak estalita baitaude.

2.- Toki Administrazioaren Zerbitzutik honako honen berri eman didate:

– 2018ko ekainaren 12an, 112. NAO-n, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren maiatzaren 29ko 151/2018 Foru Agindua argitaratu zen; horren bidez onetsi zen Nafarroako Foru Komunitatean 2018ko apirilean izandako aparteko eurite eta uholdeek ukitutako udalerrien zerrenda, eta ezarri ziren fenomeno horiek ukitutako pertsona fisiko eta juridikoek izan ditzaketan zerga salbuespenak, baita salbuespen horiek aplikatu dituzten udalerriei eman beharreko konpentsazioak ere.

– Geroztik, abuztuaren 13an, 156. NAO-n, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren uztailaren 23ko 187/2018 Foru Agindua argitaratu zen, maiatzaren 29ko 151/2018 Foru Agindua aldatzen zuena; horren bidez onetsi zen Nafarroako Foru Komunitatean 2018ko apirilean izandako aparteko eurite eta uholdeek ukitutako udalerrien zerrenda, eta ezarri ziren fenomeno horiek ukitutako per-

tsona fisiko eta juridikoek izan ditzaketen zerga salbuespenak, baita salbuespen horiek aplikatu dituzten udalerriei eman beharreko konpentsazioak ere; foru agindu honen bidez fenomeno horiek 2018ko apirilean, maiatzean eta ekainean ukitutako udalerrien beste zerrenda bat onesten da.

– Bi foru agindu horiek onestea eragin zuten inguruabarrak ondoren azaltzen ditugun hauek dira:

- 2018ko apirilean, aparteko uholdeak izan ziren Foru Komunitateko zenbait herritan, gertatutako euri handien ondorioz.

- Zein udalerrri zeuden kaltetuta jakite aldera, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak txostenak eskatu zizkien Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuari eta Babes Zibilerako Zerbitzuari.

- Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuak txosten bat eman zuen, zeinean uholde bereziek ukitutako udalerrriak jaso baitzituen, bere eskumenen esparruari zegokion informazioaren arabera. Era berean, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Babes Zibilerako Zerbitzuak txosten bat eman zuen aparteko uholdeek ukitutako udalerrien zerrenda batekin, udalerrri horiek ibai-arroen arabera ordenaturik.

- Aipatutako txostenetan oinarrituta, Toki Administrazioiko Zuzendaritza Nagusiak “alde zuzeneko kontsulta” bat argitaratu zuen Nafarroako Gobernu Irekiaren Atarian “euriak eta uholdeek kaltetutako udalerrien zerrendari buruz eta kasuko salbuespenak eta kalte-ordainak zehazteko”; horren xedea zen maiatzaren 4tik maiatzaren 11ra, biak barne, uholdeek eta aparteko euriek kaltetuta egon eta aipatutako txostenetan oinarrituz egindako zerrendan agertzen ez ziren herriek eskatu ahal izan zezatela zerrenda horretan egotea. 14 udalerririk eskatu zuten zerrendan sartzea. Eskaera horiek ikusita, Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuak eta Babes Zibilerako Zerbitzuak txosten bana eman zuten, biak ere hamalau udalerrri horiek zerrendan sartzearen aldekoak.

- Behin ukitutako udalerrien zerrenda osaturik, aipatutako egunetan gertatutako fenomenoaren ondorioz herri horietan pairatutako kalteak arintze aldera Nafarroako Gobernuak eman beharreko laguntzak aplikatzearen ondorioetarako, eta Nafarroako Foru Komunitatean gertaturiko uholdeen, haizete indartsuen eta beste fenomeno natural batzuen ondoriozko hondamendiek kalteturiko pertsonen laguntza eta babesa emateari buruzko

urriaren 30eko 11/2009 Foru Legea aplikatuz, zerrenda hura onetsi zen, bai eta 2018ko apirilean Foru Komunitatean gertatutako euriteek eta uholdeek ukitutako pertsona fisiko eta juridikoek aplikatu zituzten zerga-salbuespen eta kalte-ordain zehaztapena ere.

- Foru aginduaren proiektua eginda, Toki Araubideko Foru Batzordeak haren aldeko txostena eman zuen, 2018ko maiatzaren 10ean egindako bilkuran, eta gero arestian aipatutako maiatzaren 29ko 151/2018 Foru Agindua onetsi zen, zeinaren bidez adierazten baitzen zein ziren 2018ko apirilean Foru Komunitatean gertatutako aparteko euriek eta uholdeek ukitutako udalerririk; honako hauek, hain zuzen:

- Zare, Ibargoiti, Orbaizeta, Orbara, Lerga, Irunberri, Auritz, Abaurregaina, Itzagaondoa, Ledea, Lizoain-Arriasgoiti, Elo, Untziti, Urrotz-Hiria, Galipentzu, Alesbes, Caparrosa, Kaseda, Martzilla, Mérida, Santakara, Altsasu, Arakil, Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Ziordia, Etxarri Aranatz, Uharte Arakil, Irañeta, Iturmendi, Lakuntza, Olazti, Urdiain, Itza, Olo, Artazu, Beraskoain, Berbinztana, Burlata, Ziritza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Faltzes, Girgillao, Uharte, Larraga, Mañera, Mendigorria, Miranda Arga, Oltza Zendea, Iruña, Azkoien, Gares, Bidaurreta, Atarrabia, Zabaltza, Cortes, Buñuel, Ribaforada, Fustiñana, Cabanillas, Fontellas, Tuteria, Arguedas, Valtierra, Castejón, Milagro, Cadreita, Funes, Azagra, Lodosa, Lizarra, Cárcar, Andosilla, San Adrián, Lerin eta Ameskoabarrena, Burgi, Galar, Aribe, Orotz-Betelu, Tafalla, Erriberri, Beire, Pitillas eta Murillo el Cuende.

- Aipatutako foru agindua argitaratu eta indarrean sartu ondoren, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuko Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuak txosten bat eman zuen, zeinean aipatzen baitzuten 2018ko apirilean eta 2018ko maiatzean eta ekainean ere euriteak gertatu zirela Nafarroako Foru Komunitateko zenbait herritan, eta eurite horiek uholdeak eragin zituztela Ebro, Aragoi, Arga eta Ega ibaie-tako eta haien adarretako arroetan, eta uholde horiek kalteak sortu zituztela azpiegiturretan. Hori dela eta, euri-ur gehienak azaleko isurketa bidez kanporatu ziren, higaduraren ondoriozko kalteak sortuz eta arestian aipatutako Nafarroako ibai nagusi horiek gainezka egitea eraginez. Halaber, zenbait udalerritako sakanetan tokiko uholdeak gertatu ziren, eta urak landa-lurra hartu zituen, kalte handiak sortuz nekazaritza-azpiegiturretan. Txosten horrek halako kalteak zerbitzu honi jakinarazitako udalerrien zerrenda jasotzen zuen, eta bai apirilean bai maiatz-ekainetan ere gertatutako

kalteak aipatzen zituen, zerbitzu hari zegokion eskumenen esparruan zeukan informazioari jarraituz.

- Aipatutako informazioa aztertuta, ondorioa zen maiatzaren 29ko 151/2018 Foru Aginduan jasotako udalerrien zerrenda luzatu egin beharra zegoela, eta, horrenbestez foru agindua aldatu beharra zegoela soilik zerrenda horri zegokionez, hartan jasota egon zitezen bai apirilean kalteak jasan arren foru aginduan agertzen ez ziren udalerririk, bai maiatz-ekainetan kalteak pairatutako udalerririk ere.

- Informazio berri hori ikusita, beharrezkotzat jo zen maiatzaren 29ko 151/2018 Foru Agindua aldatzea, ukitutako udalerrien zerrendan beste udalerririk sartuz eta zerrenda horrek hartzen zuen aldia maiatzera eta ekainera luzatuz

- Aurrekoa aldatzen zuen foru aginduaren proiektua eginda, Toki Araubideko Foru Batzordeak haren aldeko txostena eman zuen 2018ko uztailaren 20an egindako bilkuran. Geroztik, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren uztailaren 23ko 187/2018 Foru Agindua onetsi zen, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren maiatzaren 29ko 151/2018 Foru Agindua aldatzen duena. Horren bidez onetsi zen Nafarroako Foru Komunitatean 2018ko apirilean izandako aparteko eurite eta uholdeek ukitutako udalerrien zerrenda, eta ezarri ziren fenomeno horiek ukitutako pertsona fisiko eta juridikoek izan ditzaketen zerga salbuespenak, baita salbuespen horiek aplikatu dituzten udalerriei eman beharreko konpentsazioak ere; foru agindu horren bidez fenomeno horiek 2018ko apirilean, maiatzean eta ekainean ukitutako udalerrien beste zerrenda bat onesten da.

– Honako hau da udalerrien zerrenda berria:

- Zare, Ibargoiti, Orbaizeta, Orbara, Lerga, Irunberri, Auritz, Abaurregaina, Itzagaondoa, Ledea, Lizoain-Arriasgoiti, Elo, Untziti, Urrotz-Hiria, Galipentzu, Alesbes, Caparoso, Kaseda, Martzilla, Mérida, Santakara, Altsasu, Arakil, Arbizu, Arruazu, Bakaiku, Ziordia, Etxarri Aranatz, Uharte Arakil, Irañeta, Iturmendi, Lakuntza, Olazti, Urdiain, Itza, Olo, Artazu, Beraskoain, Berbinzana, Burlata, Ziritza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Faltzes, Girgillao, Uharte, Larraga, Mañeru, Mendigorria, Miranda Arga, Oltza Zendea, Iruña, Azkoien, Gares, Bidaurreta, Atarrabia, Zabaltza, Cortes, Buñuel, Ribaforada, Fustiñana, Cabanillas, Fontellas, Tuteria, Arguedas, Valtierra, Castejón, Milagro, Cadreita, Funes, Azagra, Lodosa, Lizarra, Cárcar, Andosilla, San Adrián, Lerin eta

Ameskoabarrena, Burgi, Galar, Aribe, Orotz-Betelu, Tafalla, Erriberri, Beire, Pitillas eta Murillo el Cuende, Esteribar, Longida, Puiu, Urraulbeiti, Garde, Esa, Jaitz, Gesalatz, Oibar, Uxue, Erriberri, Erromantzatua, Leotz, Zangoza, Ultzama, Cascante eta Murchante.”

– Bi foru agindu horiek Nafarroako Gobernuaren erabaki banaren bidez berretsi dira.

– Bestalde, 2018ko apirilean zehar, Nafarroako Atariko Zerbitzuen Zorroan fitxa bat jarri zen, toki entitateek haren bitartez komunikatu ahal izan zituzten 2017-2019 urteetako toki inbertsioen planean jasotako toki azpiegiturarako kalteak, bai eta udalaren edo kontzejuaren eskumenekoak diren beste batzuetan izandakoak ere, 2018ko apirilko uholdeen eraginez gertatu direnak. Fitxa horrek indarrean jarraitzen du, kalteak eragin ditzaketen fenomeno atmosferikoak gertatzen badira ere, eta edozein toki entitatek eskura dezake.

– 2018ko apirilean eta maiatzean, zenbait toki entitateen eskaerak jaso ziren aipatutako kalteak direla eta. Eskaera horietako bakoitza aztertu zen, eta teknikariek hainbat bisitaldi egin zituzten bertatik bertara. Galipentzu, Getze-Ibargoiti, Tafalla eta Caparoso izan ziren eskaerak aurkeztutako herriak. Teknikariek beren bisitak egin ondoren, lehenengo hiruretan ezetsi egin ziren egindako eskaerak, egin beharreko obrak “larrialdikoak” izateari dagokionez. Caparrosoko kasua, berriz, aztertzeke prozesuan dago gaur egun.

– Bestalde, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak, 4. artikuluan, ezartzen du Inbertsio Programen eta Toki Programazioaren ataletarako zenbateko osoaren 100eko 5eraino gordeko dela larrialdiko eskaeraren kalifikazioa dutenei eta haien inbertsio osagarriari aurre egiteko, edo salbuespeneko araubideko finantzabidea behar duten inbertsioei aurre egiteko, eta aipatzen du ezen, betiere, larrialdizat kalifikatuko direla hornidurako, saneamenduko eta euri-uretarako toki sare guztiak, arriskua sortu edo arazo sanitario larriren bat eragiten badute, eta kaleko argiak ere bai, arriskua sortu edo arazo larriren bat eragiten badute.

– Foru lege horren beraren 19. artikulua larrialdiko prozedura arautzen du, eta ezartzen du toki inbertsioen planean sartu ahalko direla azpiegiturak eta ekipamenduak berehalakoan lehengoratzeko beharrezkoak diren jarduketak, hondamendiak tartean direla egin beharrekoak, edo pertsonen nahiz ondasunen segurtasunerako arriskua dagoenean.

– Bestalde, 2018ko apirilean zehar, Nafarroako Atariko Zerbitzuen Zorroan fitxa bat jarri zen, toki entitateek haren bitartez komunikatu ahal izan zitzaten 2017-2019 urteetako toki inbertsioen planean jasotako toki azpiegituretako kalteak, bai eta udalaren edo kontzejuaren eskumenekoak diren beste batzuetan izandakoak ere, 2018ko apirilko uholdeen eraginez gertatu direnak. Fitxa horrek zabalik jarraitzen du. Halere, joan den uztailearen 13ko ekaitza dela eta, zuzendaritza nagusi honek

inongo jarduketarik ez du egin, zeren eta ez baitaio horren berri eman.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 2an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak antolatuta, Merkataritza Ganberak eta zenbait enpresak Estatu Batuetara eginen dituzten bidaiei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak antolatuta, Merkataritza Ganberak eta zenbait enpresak Estatu Batuetara eginen dituzten bidaiei buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramirez jaunak galdera egin du (9-18/PES-00165) Nafarroako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberarekin batera Estatu Batuetara zenbait bidaia antolatu izanari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomikorako kontseilariak horri buruz eman beharreko informazioa:

Nafarroako Gobernuak Garapen Ekonomikorako Departamentuak kudeaketa-esleipen bat egina

du Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberarekin 2018. urtean nazioartekotze-jarduerak egiteko. Horretan aurreikusita dago Estatu Batuetara hiru misio-bidaia egitea, herrialde horretan Nafarroako enpresen nazioartekotzea bultzatzeko:

1. New Yorkeko Ekosistema Berritzailea ezagutzera helburu duen azterketa-misioa, Nafarroako startupentzat. Ekintza hori gaur egun egingen ari da New Yorken, eta lau egun iraunen du.

2. Nekazaritzako elikagaien enpresentzako merkataritza-misioa Estatu Batuetan. Enpresa-harremanek lau egun iraunen dute, azaroaren 26ko astean, New York eta Miami hirietan.

3. Nafarroako automozioaren eta mekatronikaren sektorea ezagutzera emateko eta sektore horrek Estatu Batuetan dauzkan aukerak aztertzeko misioa. Aurkezpenak eta harremanak azaroaren 26ko astean izanen dira. Michigan eta Alabama estatuak bisitatuko dira.

Nafarroako Gobernuaren kargura eginen diren misio horien aurrekontua honako hau da:

	<b>Nafarroako Gobernuaren gehieneko aurrekontua</b>
Startupen misioa.	5.677,26 €
Nekazaritzako Elikagaietako enpresen misioa.	5.473,00 €
Automozioaren eta mekatronikaren sektorearen misioa.	29.000,00 €

Lehenengo bi misioak Nafarroako Gobernuak eta Ganberak elkarrekin antolatu ditugu, eta haientarako FEDER funtsen kofinantzaketa lortu da.

Misio instituzionala, bere izaeragatik beragatik, soilik Gobernuarena den ekintza bat da, eta haren

gauzatzea Nafarroako Ganberari enkargatzen zaio. Nafarroako Gobernuak erabat finantzatzen du.

Honako hau da ekintza horietako bakoitzerako aurrekontuetan jasotako gastuen xehetasuna:

## STARTUPEN MISIOA

Gastuaren kontzeptua	Ekintzaren kostua, guztira	FEDER-en ekarpena	Nafarroako Gobernuaren ekarpena	Enpresaren ekarpena
Bidaiak, hotelak, enpresetarako joan-etorriak	30.000,00	15.000,00		15.000,00
Bidaia, hotelak, ganberako teknikariaren joan-etorriak	3.000,00	1.500,00	1.500,00	
Jomugako agenda	8.403,36	4.201,68		4.201,68
Enpresen beharrianak prestatzeko eta zehazteko lana	2.343,00	1.171,50	1.171,50	
Enpresei lagun egitea	1.070,08	535,04	535,04	
Jarduketari buruzko txostena	668,80	334,40	334,40	
Nafarroako Gobernuko pertsonaren eta ganberako teknikariaren mantenua	1.200,00		1.200,00	
Egin beharreko orduak, FEDER-i ezin egotz dakizkiokeenak	936,32		936,32	
	<b>47.621,56</b>	<b>22.742,62</b>	<b>5.677,26</b>	<b>19.201,68</b>

## NEKAZARITZAKO ELIKAGAIEN MISIOA

Gastuaren kontzeptua	Guztira	FEDER-en ekarpena	Nafarroako Gobernuaren ekarpena	Enpresaren ekarpena
Bidaiak, hotelak, joan-etorriak	30.000,00	15.000,00		15.000,00
Bidaia, hotelak, ganberako teknikariaren joan-etorriak	3.000,00	1.500,00	1.500,00	0,00
Jomugako agenda	20.168,07	10.084,03		10.084,03
Enpresen beharrianak prestatzeko eta zehazteko lana	1.716,00	858,00	858,00	
Enpresei lagun egitea	915,20	457,60	457,60	
Jarduketari buruzko txostena	572,00	286,00	286,00	
Nafarroako Gobernuko ordezkariaren eta ganberako teknikariaren mantenua	1.200,00		1.200,00	
Egin beharreko orduak, FEDER-i ezin egotz dakizkiokeenak	1.171,50		1.171,50	
	<b>58.742,77</b>	<b>28.185,63</b>	<b>5.473,10</b>	<b>25.084,03</b>

## AUTOMOZIOAREN XEDEA

Ganberari egindako enkarguari dagokion gastu-kontzeptua	Nafarroako Gobernuaren ekarpena
Bidaia, hotelak, ganberako teknikaria	3.500,00
Taldearen barruko joan-etorriak, aireportua, taxiak...	3.000,00
Jomugako agenda	6.000,00
Nafarroako Gobernuak eskainitako "Nafarrak Chicagon" koktela	3.000,00
Bidaia egindako pertsonaren mantenua	1.200,00
Enpresen beharrianak prestatzeko eta zehazteko lana, eta lagun egitea	5.689,20
Hainbatzearen balizko eraginak eta subjektu pasiboaren inbertsioa	1.000,00
	<b>23.389,20</b>

## Gastu hori zein partidari egotziko zaion:

Partida	Zenbatekoa
810003 81430 2276 146104, Merkataritza Ganberari nazioartekotzea dela emandako enkargua -eta	34.150,26 €
810003 81430 2269 145100, Nazioartekotzeko planeko ekintzak	3.500,00 €
800000 80000 2301 421100, Kontseilari jaunaren bidaia-gastuak	3.500,00 €

• Bidaietako bakoitzaren helburu zehatzak eta bidaia horietako efizientzia eta eraginkortasuna ebaluatzen ezartzen diren adierazleak.

Bi enpresa-misioen kasuan, helburua da Nafarroako ekonomiaren esportazioa eta esportazio-oinarria handitzea, bai eta enpresa esportatzaileen jomugako merkaturua dibertsifikatzea ere. Bi kasuetan, deialdi publiko bidez bilatzen da ahal den enpresa gehienera iristea; gutxienerako helburua bost enpresara iristea izanen da.

Zehazki, honako hauek dira Estatu Batuetako (New York) sistema berritzailea eta ekintzailetzakoa ezagutzeko ekintzaren helburuak:

– Amerikako merkaturua baloratzea eta merkataritza bertan ezartzeko edo zabaltzeko aukerak aztertzea.

– Estatu Batuetan maila goreneko harremanen sare bat ezartzea.

– Estatu Batuetako ekintzailetza-ekosistemaren eragile nagusiengana iristea.

– Arrakasta duten ekintzaileek erabilitako estrategiak eta tresnak ezagutzea.

– Inbertitzaileekin zuzeneko harremana edukitzea.

– Eskura dauden finantzaketarako plataforma eta eredu desberdinen ezagutza zabaltzea.

Nekazaritzako elikagaien enpresentzako misioaren helburua da parte hartzen duten enpresei harremanen agenda pertsonalizatu bat ematea, Estatu Batuetako merkaturako balizko bezeroekin eta inportatzaileekin.

Bi ekintza horiek ebaluatuko dira enpresa parte-hartzaileei egindako inkesta baten bitartez; inkesta horretan, bilatutako helburuen betetzea eta lortzea neurtu da.

Hirugarren misioari dagokionez, helburu du Nafarroako automozioaren eta mekatronikaren sektorea ezagutzera ematea Estatu Batuetako enpresa-sektoreko eta ezagutzaren sektoreko eragileei. Horretarako, bidaietako jomugak hautatu dira automobilen fabrikazioaren arloko espezializazioaren arabera eta daukaten mugikortasun jasangarriko eta adimenduko teknologiaren arabera. Alabamako kasuan, gainera, asmoa da bertan lan egiten ari diren enpresa nafarrei bisita egitea, beren jarduerari merkataritza-diplomaziaren ikuspuntutik laguntza emateko.

Behin bidaia eginda, memoria bat eginen da, zeinean lortutako emaitzak baloratuko baitira.

Horietako bakoitzera joanen den ordezkartza zehazteari dagokionez, hiru taldeetan Nafarroako Ganberako teknikari bat egonen da, zeren eta Ganbera baita bidaiaren xehetasunak antolatzen duen Gobernuak egindako enkargua duena.

Nafarroako enpresek Estatu Batuetako ekosistema berritzaileak eskaintzen dizkien aukerak ezagutzea helburu duen misioaren kasuan, CEI-Nen arduradun bat ere joanen da, parte hartzen duten enpresei laguntza emateko eta hartzen duen ezagutza aprobetxatzeko misiora joaterik ez duten baina herrialde horretan aukerak aurki litzaketen mintegiko enpresei aholkua emateko. Ez dago aurreikusita Gobernuko inongo kidek parte hartzea.

Automozioaren sektoreko misioak merkataritza-diplomaziaren izaera dauka, eta Nafarroako

Gobernuaren izenean Garapen Ekonomikorako Departamentuko kontseilaria, Politika Ekonomiko eta Enpresarialaren eta Lanaren zuzendari nagusia eta Sodenako nazioartekotze planerako merkataritza arloko ordezkaria bertaratuko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 27an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manu Ayerdi Olaizola

## Galdera, informazio-seinale bertikalei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, informazio-seinale bertikalei buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 16an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioa ordezkatzuz, Maiorga Ramirez Erro jaunak 9-18/PES-00166 galdera parlamentarioa egin du. Galderan azal-tzen du Nafarroako errepide sarean badau-

delat informazioko-seinale bertikal batzuk naturguneei, kultur ondareari eta turismo jardueri buruzkoak (esate baterako, AP-15 autobideko Imarkoain-Tafalla tartekoa –"Carrascal" mendiari buruzkoa– ekarri nahi duela gogora; izan ere, ez dator bat lekuaren berezko izenarekin, zehazki "Artederreta" baita). Horri buruz, honako informazio hau ematen dio Garapen Ekonomikorako kontseilariak:

1.- Informazioko bide-seinalearen edukia zuzena ala okerra den koherentziaz baloratu ahal izateko, lehenbizi kontuan hartu beharra dago, lehenbizi, seinale horrekin zein informazio eman nahi zaion errepideko erabiltzaileari.

Galderaren xede den seinale zehatza honako irudi honetan ikus daitekeena da:



bai eta AP-15eko kontrako norabidean ageri den haren simetrikoa ere.

2.- Kontuan hartu beharra dago, era berean, zein den hura zein eremu geo-grafikotan dagoen jarria.

3.- Gure ustez, aipatutako kartelaren xedea ez da seinalizatzea aipatutako seinalea zein parajetan dagoen, zeren eta AP-15 autobideak ez baitu formatu horretako lokalizazio geografikoko seinaleztapenik (AP-15 autobidearen ertzetan ikus daitezkeen antzeko kartelek lotura-guneetan eta inguruetan dauden jomuga turistikoetarako orientabidea emateko gezi-kartelaren formatua dute).

Aitzitik, badirudi aipatutako kartelaren xedea dela informatzea, sareko toki as-kotan ohikoa den bezala, bide-azpiegitura zeharkatzen ari den "mendi-portuaren" altuerari buruz.

4.- Unzué<>Untzue eta Artederreta sarreretarako Nafarroako Toponimia Ofi-ziala datu basean jasotakoa aztertuta, aurkitzen den toponimo bakarra "Arte-derreta, Ermita de Nuestra Señora de" da, eta ez dator bat AP-15eko erabil-tzaileei eman nahi zaien informazioarekin.

Aitzitik, datu base horretan Unzué<>Untzue eta El Carrascal sarrerak konsul-tatuta, honako toponimo eta aldaera hauek aurkitzen dira: "Carrascal"; "Carrascal, el"; "Carrascal, monte de", eta "Carrascal, puerto de". Horiek, izan ere, bat datoz, zehatz, azpiegiturako erabiltzaileei eman nahi zaien informazioarekin.

5.- Emandako arrazoiak direla eta, uste dugu galderaren xede den kartelaren edukia zuzena dela eta ez dela Audenasarekin batera inongo jarduketarik egin behar egungo errotulazioa aldatzeko.

6.- Toponimoen aukeraketari dagokionez, Herri Lan Zuzendaritza Nagusiak ez du detektatu inongo gabeziarik dagoenik Errepideen Sareko informazio-seinale bertikaletan, eta egiten duen bakarra da horiek ordeztu eta gaurkotzea horri buruz indarrean den araudiari jarraituz (turismoko seinaleei dagokienez, Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusiaren irizpidearen arabera), Nafarroako herriguneen izen ofizialak erabiltzeko eta grafikoki adierazteko irizpideak onartzen dituen otsailaren 28ko 5/2018 Foru Dekretuaren xedapen iragankorrean horretarako aurreikusita dauden epeen arabera.

Herrilan Zuzendaritza Nagusiak ez du oro har eta sare osorako jarduketarik egiten informazio-seinale bertikaletan detektatutako gabeziak zuzentzeko; aitzitik, kontserbazio-arrazoiengatik egin beharreko ordezteak egiten ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko urriaren 15ean

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola



## **Galdera, Hezkuntza Departamentuko Irakasleari Laguntzeko Zentroen eta Berriztapen Proiektuen Bulegoko burua kargutik kentzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Departamentuko Irakasleari Laguntzeko Zentroen eta Berriztapen Proiektuen Bulegoko burua kargutik kentzeari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00167 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Gobernuo Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Irakasleen Laguntza Zentroen eta Berriztapen Proiektuen Bulegoko aurreko buruak arrazoi pertsonalengatik eman zuen dimisioa, eta eskerrak eman zituen harengan jarritako konfiantzarengatik.

Iruñean, 2018ko irailaren 28an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuo ele-duna: María Solana Arana

---

## **Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako funtzionarioei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Irakasleari Laguntzeko Zentroetako funtzionarioei buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18-PES-00168 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Erantzuna prestatu ahal izateko, zehaztu beharko da Hezkuntza Departamentuak igorritako zein informazio aipatzen den idatzizko galderan, bai eta informazio horretan detektatutako aldeak ere, hain zuzen aipagai direnak.

Iruñean, 2018ko irailaren 27an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuo ele-duna: María Solana Arana

## **Galdera, jakitekoa ea igorritako informazioan zergatik ez diren zenbatzen funtzionarioek Irakasleari Laguntzeko Zentroetan emandako urte guztiak.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa ea igorritako informazioan zergatik ez diren zenbatzen funtzionarioek Irakasleari Laguntzeko Zentroetan emandako urte guztiak. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko urriaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioak 9-18-PES/-00169 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa: Erantzuna prestatu ahal izateko, zehaztu beharko da idatzizko galderan departamentuak igorritako zein informaziori buruz ari den.

Iruñean, 2018ko irailaren 27an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

---

## **Galdera, Irakasleari Laguntzeko Zentroetan egun dauden lanpostu irregularrak betetzeko deialdi publikoari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Irakasleari Laguntzeko Zentroetan egun dauden lanpostu irregularrak betetzeko deialdi publikoari buruzkoa. Galdera 2018ko irailaren 10eko 106. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko irailaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18-PES-00170 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

ILZen aholkularitza-lanpostuak, bete gabe daudenak, merezimenduen lehiaketa bidezko deialdian arterako dira, Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren kasuko ebazpenean ezarritako epe arruntetan.

Iruñean, 2018ko irailaren 27an

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileen 2019ko lan egutegia.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Zerbitzu Orokorretako buruak aurkeztutako proposamena, Nafarroako Parlamentuko Langileen Batzordeak horri buruz adierazitako adostasunaz, hona ERABAKIA:

**1.** Onestea Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko langileentzako 2019ko jaiegunen eta egun berezien egutegia. Honako hau da:

- Uztailaren 8a, 9a, 10a, 11 eta 12a: Sanferminetako jaiegunak.
- Azaroaren 29a: San Saturnino jaieguna.
- Martxoaren 18a, abuztuaren 16a eta abenduaren 31, jaiegun.

Gainerako jaiegunak izanen dira Foru Komunitateko Administrazioarako oro har ezarritakoak.

**2.** Ohiko lanaldia gaur egun indarra duen bera izanen da; hots, eguneko 7,5 ordukoa, astelehenetik ostiralera.

Uztailean, abuztuan, urtarrileko lehen astean eta iraileko lehen hamabostaldian lanaldia 08:00etatik 14:30era bitartekoa izanen da. Sartzeko, 07:30etik 08:30era bitarteko malgutasuna egonen da; ateratzeko, berriz, 14:00etatik 15:00etara bitartekoa. Betiere, egunean 6 ordu eta erdiko lanaldia egin beharko da.

**3.** Urteko gainerako egunetarako lan txanda hauek izanen dira langile guztiek bete beharrekoak, talde bakoitzaren berezitasunak kontuan harturik:

1) Goiz eta arratsaldeko txanda.

Langileek astean behin izanen dute txanda hau, Legebiltzarraren beharizanak horretarako modua emanez gero, eta gehienez ere astean bi aldiz. Zerbitzburuei dagokie txanda zehaztea.

Ordutegia 08:45etik 17:30era bitartekoa izanen da, bazkarirako ordu eta laurdeneko atsedenaldirik barne, zeina 15:00ak baino lehenago egin beharko baita. Ordutegi-malgutasuna 09.15era bitartekoa izanen da sartzeko, eta 18:00etara bitartekoa ateratzeko, Legebiltzarraren beharizanek horretarako modua emanez gero.

2) Goizeko txanda jarraia.

Gainerako astegunetan eginen dute langileek.

Ordutegia 07:30etik 15:00etara bitartekoa izanen da, sartzeko 09:30era bitarteko ordutegi-malgutasunarekin eta irteteko 17:00etara bitartekoarekin, Legebiltzarraren beharizanek horretarako modua emanez gero.

3) Arratsaldeko txanda jarraia edo goiz eta arratsaldeko txanda.

17:30etik aurrera egiten diren parlamentuz kanpoko ekitaldietarako, Mahaiak erabakiko du, zerbitzburuek proposaturik, zer langile diren derrigorrezkoak, eta horiek zehaztea zerbitzburuei dagokie.

Langile horiek zilegi izanen dute 7:30 orduko iraupeneko arratsaldeko txanda jarraia egitea, ekitaldiaren bukaera-ordu aurreikusian amaituko dena, edo goiz eta arratsaldeko txanda bat, iraupen eta bukaera-ordu horiek berak izanen dituen. Bukaera-ordua ezin izanen da 19:30etik haragokoa izan.

**4.** Urteko 1.560 lanorduen kopurua lortze aldera, langileek erabilera libreko ordu eta erdi bat hartu ahal izanen dute 2019. urtean zehar.

**5.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren 2019ko ordutegi ofiziala.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko azaroaren 19n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 107. eta 109. artikuluek ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

**1.** Ezartzea hauxe izanen dela Nafarroako Parlamentuko Erregistro Orokorraren ordutegi ofiziala 2019. urterako:

Uztailean, abuztuan, urtarrilaren lehendabiziko hamabostaldian eta irailaren lehendabiziko hamabostaldian:

– Astelehenetik ostiralera:

09:00etatik 14:00etara.

– Uztailaren 8an, 9an, 10ean, 11n eta 12an itxita egonen da, eta baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

Urtarrilaren 8tik ekainaren 28ra, irailaren bigarren hamabostaldian eta urritik abendura bitartean:

– Astelehenetik ostegunera:

09:00etatik 17:30era.

– Ostiraletan: 09:00etatik 14:30era.

– Martxoaren 18an, abuztuaren 16an eta abenduaren 31n itxita egonen da, eta egun horiek baliogabeak izanen dira ondorio guztietarako.

**2.** Baliogabeak izanen dira, halaber, larunbat, igandeak eta Nafarroako Foru Komunitaterako eta Iruñerako ezarritako jaiegunak.

**3.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko azaroaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza